

# **Terentzioren *Eunuchus* (1-548) antzezlanaren euskarazko itzulpena eta oharrak**

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
2019-2020 Ikasturtea

**Ikaslea:** Maialen Fernandez Martinez

**Tutorea:** Gidor Bilbao Telletxea

**Saila:** Ikasketa Klasikoak

## AURKIBIDEA

1.	Terentzio eta <i>Eunukoa</i> .....	3
2.	Itzulpen-prozesua.....	5
3.	Itzulpen-arazoak.....	6
3.1.	Pertsonaien izenak.....	6
3.2.	Erregistroa.....	9
3.2.1.	Hitanoaren erabilera.....	9
3.2.1.1.	Tais .....	11
	Kasu berezia: Taisek bere buruari noka egitea .....	13
3.2.1.2.	Fedria .....	15
3.2.1.3.	Parmenon.....	16
3.2.1.4.	Kerea.....	17
3.2.1.5.	Trason .....	18
3.2.1.6.	Gnaton .....	19
3.2.1.7.	Pitias .....	20
3.2.1.8.	Kremes.....	21
3.2.1.9.	Antifon.....	21
3.2.2.	Berorikako tratamendua 270-271 bertso-lerroetan.....	22
3.3.	Elementu paratestualak .....	23
3.3.1.	Akotazioak .....	23
3.3.2.	Terentzioren hitzaurrea .....	25
3.4.	Lexikoa.....	26
3.4.1.	<i>Virgo, -inis</i> .....	26
3.4.2.	<i>ex Aethiopia ancillula</i> (165) .....	28
3.4.3.	<i>Piscator, -oris</i> eta <i>cetarius, -ii</i> (257).....	29
3.4.4.	<i>Scortum, -i</i> (424).....	31
3.4.5.	<i>Pulpamentum, -i</i> (426) .....	32
3.4.6.	<i>Homo, -inis</i> = “tipo” .....	33
3.5.	Kultura-erreferentziak .....	35
4.	Itzulpena.....	37
5.	Bibliografia .....	68

## 1. Terentzio eta *Eunukoa*

*Eunukoa* Publio Terentzio Afer (latinez Publius Terentius Afer, K.a. 185/195 - K.a. 159) kartagotar komediagilearen obrarik arrakastatsuen izan zen, tramaren dinamismoari, parodiari, ironiari eta egileak darabilen lagunarteko hizkerari esker. Terentzioren sei obra iritsi zaizkigu gaur egun arte: *Andria* ('Androseko neskatua'), *Hecyra* ('Amaginarreba'), *Heautontimoroumenos* ('Bere buruaren torturazalea'), *Phormio* ('Formion'), *Eunuchus* ('Eunukoa') eta *Adelphoe* ('Anaiak'). Sei obra horiek greziar antzezlan klasikoetatik abiatuta ondu zituen autoreak, eta *palliata* generokoak dira guztiak; hots, Grezian kokatutako antzezlan latindarrak. Izan ere, garai hartan, erromatarrek izugarri miresten zuten greziar kultura eta oso ohikoa zen greziar idazleen lanak latinera ekartzea; Terentzioren obrak, ordea, ez dira itzulpenak, fusioak baizik. Autoreak greziar idazleen lanetako ideiak baliatu zituen bere antzezlanak idazteko, eta horri "kontaminazio" deitzen zioten erromatarrek; hau da, greziar antzezlanen bustitako edo kontaminatutako obrak (Del Col, 2008: 3-6; Brown, 2013: 17-18).

*Eunukoaren* kronologiari dagokionez, ez dago adostasunik adituen artean. Kodex eskuizkribatu guztien arabera, egilearen bigarren obra dugu hau. Hala ere, teoria ugari sortu dira horren inguruan: Donato gramatikariaren arabera, Terentzioren hirugarrena da; eta didaskalietan ageri den informazioaren arabera, bigarrena zein laugarrena izan liteke. Gehienek iritziz, K.a. 161. urtean jokatu zuten lehen aldiz, Zibelesen Magna Mater Idaearen tenpluan, joko megalesiarretan. Arrakasta handia lortu zuen bertan; horrenbestekoa ezen ikusleek berriro antzezteko eskatu baitzieten. Obra horri esker, Terentziok ospe handia lortu zuen erromatar intelektualek artean, eta haren eragina oso nabaria da hurrengo autoreengan ere; esaterako, Zizeron, Horazio eta Kintilianorengan, zeinek *Eunukoa* liburuko zenbait pasarte aipatu baitzituzten beren lanetan (Del Col, 2008: 3-6; Christenson, 2013: 262).

Antzezlan bost ekitalditan banatuta dago. Hona hemen obraren argumentua: Tais prostituta eta Fedria gaztea maiteminduta daude, eta Taisek askotan eskatzen dio bere maitaleari opariak egiteko; horien artean, eunuko bat. Aldi berean, ordea, prostitutak Trason soldadua ere limurtu nahi du; izan ere, bere ahizpa izan litekeen neskatila bat aurkitu du, Panfila izenekoa, eta hura oparitu diezaion nahi du. Taisen asmoa neskatila haren familiarekin elkartzeko da. Fedria, horretaz konturatuta, jelskor jarri da, baina landa aldera egin du alde Taisen eskariz, eunukoa bere esklabo Parmenonen esku utzita.

Bestalde, Kereak (Fedriaren anaia gazteak) Taisi oparituko dioten neskatila ikusi du eta harekin maitemindu da zeharo; hainbeste non Parmenon esklaboari laguntza eskatu baitio harengana gerturatzeko. Parmenoni otu zaio mutil gaztea eunukoaren jantziekin mozorrotzea, eta haren ordeztatu du Taisen etxean. Mutilak unea aprobetxatu eta Panfila bortxatu du; egoera horretan, egundoko iskanbila sortu da beste pertsonaien artean. Hori gutxi balitz, neskatilaren neba nagusia (Kremes) azaldu da, eta arreba bere bortxatzailearekin ezkonarazi du. Bukaeran, Trason konturatu da Taisek ez zuela egiatan maite eta akordio batera iritsi da Fedriarekin, gutxienez bere maitea egunero ikusteko aukera izan dezan.

Lehen aipatu bezala, obra honek greziar antzerki klasikoaren eragin handia du; hain zuzen, Menandroren *Eunukoarena* eta *Lausengariarena*. Euskaratuko dugun lanaren hitzaurrean adierazten denez, handik bertatik atera dira soldadua eta parasitua pertsonaiak:

Badago Menandroren obra bat, Lausengaria izenekoa, eta bertan parasitua lausengari bat eta soldadua harroputz bat agertzen dira. Egileak onartzen du bi pertsonaia horiek grekozko lanetik bere Eunukorako hartu izana. (*Eunukoa*, 30-34)

Hala ere, obra honek baditu bi elementu oso bereizgarri: batetik eunuko mozorroduna, eta bestetik Tais prostituta.

Hasteko, ezinbestekoa da eunuko bat zer den azaltzea. Eunukoak gizon zikiratuak ziren; eta Ekialde Hurbileko zibilizazioetan, haremanak zaintzeko ardura zeukaten, zeren, irenduta zeudenez, ez zeukaten emakumeekin oheratzeko arriskurik. Terentzioren antzezlanean, Taisek eunuko bat eskatu dio Fedriari («erreginek soilik izaten dituztelako», *Eunukoa*, 168) eta mutil gazteak bat oparitzea erabaki du. Ironikoki, ustez irenduta zegoen hura izan da, lehenengo uste eta itxuren arabera, neskatila bortxatu duena; egoera horrek, ziur aski, ikusleei barre eragingo zien. Gainera, pentsatzekoa da hainbat eunuko apaiz izango zirela lehenengo ikusle haien artean, Zibelesen apaizak eunukoak izaten baitziren (eta gogoratu Zibelesen tenpluan antzeztu zela lehenengoz). Horrez gain, Christensonek (2013: 263-265) dioenez, zinez berritzailea izan zen Terentziok bortxaketa hari emandako ikuspuntua; izan ere, biktimaren sufrimendua erakutsi zuen lehen aldiz, argi utziz bortxatzailea zela errudun. Hortaz, komediaren atzean, helburu pedagogiko inplizitu bat ezkutatu liteke.

Bestalde, Terentziok Plautoren *meretrix mala* edo prostituta gaiztoaren arketipoa irauli egin zuen erabat. Antzinako greziar eta latindar komedietan, pertsonaiak guztiz tipifikatuta izan ohi ziren; beste era batera esanda, komediagileek jada finkatuta zeuden konbentzioen arabera eraikitzen zuten pertsonaien izaera, eta Terentzio ez zen salbuespena izan, hein batean, bederen (Henry, 1915: 57-58). Oso kontziente da horretaz, hitzaurrean ikusten denez:

Gainera, zilegi ez bada pertsonaia horiek erabiltzea, nola izango da zilegiago honako hauek ere obran sartzea? Esklaboa harat-honatean, andere handi zintzoak, prostituta gaiztoak, parasito tripontziak, soldadu harroputza, trukaturiko haurrak, gizon zaharrak engainatzen dituzten esklaboak... (*Eunukoa*, 35-39).

*Meretrix mala* edo prostituta gaiztoa, arketipo horietako bat da. Konbentzioen arabera, pertsonaia horrek gizonak manipulatu besterik ez du egiten, nahi duen guztia lortzeko, eta Terentziok, hasieran, sinetsarazi nahi digu Tais ere horrelakoa dela. Antzezlanak aurrera egin ahala, ordea, agerikoa da prostitutak asmo onez jokutzen duela beti, bai Panfilarekin baita Fedriarekin ere, eta bere ingurukoak zaindu besterik ez duela nahi. *Meretrix mala* barik, *bona meretrix* ‘prostituta zintzoa’ dugu Tais (Gilula, 1980: 161-165).

Gaur egun, oraindik aukera izan ohi dugu obra hau teatroan ikusteko, Terentzioren lan honen arrakastaren seinale.

## **2. Itzulpen-prozesua**

Itzultzea egokitu zaidan atala 1. bertso-lerrotik 548.erako tartea izan da, obraren erdia, hain zuzen. Gainerakoa Inari Plazaola Itzulpengintza eta Interpretazioko ikaskideak egin du. Hona hemen nire itzulpena egiteko eman ditudan pausoak.

Lehenik, nire itzulpena egiten hasi baino lehen, gaztelaniazko *El Eunuco* itzulpena (Pociña, 1977) irakurri nuen arretaz, istorioa zertan zetzan jakiteko; baita hitzaurrean dakarren informazioa ere, non Terentzioren biografia zein antzezlanaren inguruko analisi labur bat baitzegoen. Ondoren, Plautoren *Militar Harroputza* antzezlanaren euskarazko itzulpena (Bilbao, Garcia, Utrilla 2018) ere irakurri nuen, eta oso erabilgarria izan zait komedia greko-latindarren euskal itzulpenen berri izateko. Izan ere, lagungarria egin zait zenbait erabaki hartzeko, batik bat, akotazioen eta erregistroaren ingurukoak.

Bigarrenik, esan beharra dago Terentzioren antzezlan guztiak latinez idatzita daudela, baina nire latin ezagutza ez da aski Eunukoaren itzulpena zuzenean latinetik behar bezala egin ahal izateko. Horregatik, lan honen ezaugarrietan zehaztuta zegoen moduan, zubi-hizkuntzak erabili ditut nire lanerako. Hauek izan dira erabilitako hizkuntzak eta bertsoak: gaztelania (Rubio Fernández, 1991; Fontana Elboj, 2008), ingelesa (Barsby, 2001) eta frantsesa (Marouzeau, 1979). Batez ere Rubio Fernándezen itzulpena izan dut oinarri, haren bertsoa hitzez hitzezkoagoa delako. Horrez gain, Fontana Elbojen eta Barsbyren bertsoak oso erabilgarriak izan zaizkit latinetik gehiago urrundu direlako, naturaltasunaren alde, eta horri esker, itzuli beharreko segmentuen ikuspegi zabalagoa eman didate. Horiek guztiak nahikoa izan ez direnean, Marouzearen itzulpenera jo dut.

Hirugarrenik, antzezlan hau bertsoan idatzita dago jatorrizkoan, baina nik itzulpena prosan egitea erabaki dut, funsean arrazoi batengatik: nik erabilitako zubi-testu guztiak prosan idatzita daudelako. Hala eta guztiz ere, Terentzioren lagunarteko hizkera (hala denean) ahalik eta hobekien islatzen saiatu naiz.

Itzulpen-prozesu osoan zehar, oso kontuan izan dut norentzat zen idazten ari nintzen lana: literaturzale kultu baina latinik ez dakitenez. Horregatik, naturaltasunaren alde jokatu dut nire itzulpenean, eta, eszenatokiaren gainean antzezteko idatzia denez, testuan ahozotasunaren oihartzunak islatzen ahalegindu naiz. Horrez gain, ohar argigarriak txertatu dizkiot nire itzulpenari, irakurleak Eunukoa hobeto ulertu eta gozatu dezan. Ohar horien bitartez, irakurleak leku-izenen eta kultura-erreferentzien inguruko informazioa jasoko du; esaterako, Greziako hiri eta uharten izenak, diruen izenak, jainko eta jainkosak, greziar eta erromatar errituak, etab.

### **3. Itzulpen-arazoak**

Jarraian nire itzulpen-prozesuan zehar aurkitu ditudan oztopo batzuez eta haietzako aurkitu ditudan soluzioez jardungo dut, soluzio bakoitza hautatzeko erabili ditudan irizpideekin batera.

#### **3.1. Pertsonaien izenak**

Testu osoa itzultzen hasi aurretik, pertsonaien izenak finkatu beharra zegoen. Honelako antzezlanen edizioetan, hasiera-hasieratik aurkeztu ohi dituzte argumentua eta pertsonaia guztiak. Antzezlan honetan, zerrenda hau ageri da, pertsonaia guztien izenekin:

PHAEDRIA ADVLESCENS  
PARMENO SERVOS  
THAIS MERETRIX  
GNATHO PARASITVS  
CHAEREA ADVLESCENS  
THRASO MILES  
PYTHIAS ANCILLA  
CHREMES ADVLESCENS  
ANTIPHO ADVLESCENS  
DORIAS ANCILLA  
DORVS EVNVCHVS  
SANGA SERVOS  
SOPHRONA NVTRIX  
SENEX (DEMEA seu LACHES)  
(CANTOR)

Greziar eta latindar izenak egokitzerako orduan, kontuan izan behar da hizkuntza bakoitzak bere literatur-tradizioa duela; kasu honetan, egoera apur bat konplikatzen da, berez grekozko izenak direlako gehienak, gero latinera egokituak. Adibidez, Rubio Fernándezen (1991) bertsioan, *Phaedria* izena *Fedria* bezala egokitu du; Fontana Elbojonean, *Fedrias* ageri da, agian gaztelaniaz -a bukaera duten izenak normalean emakumezkoenak izaten direlako. Marouzearen (1979) itzulpenean, [f] soinuaren idazkera “ph”rekin mantendu da, frantsesez ere grafia hori erabiltzen delako: *Phédria*. Barsbyren (2001) itzulpenean, berriz, bere horretan mantendu du dena: *Phaedria*, literatura ingelesaren tradizioa errespetatuz.

Euskarari dagokionez, izen horien euskarazko egokitzapena Euskaltzaindiaren 76. Arauaren (*Latin eta greziar izenak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*, 1997) arabera egin dut. Lehenik eta behin, hitzen hasierak euskal ortografiara egokitu ditut. Horrela, adibidez, “PH”, “CH” eta “TH” kontsonanteak “F”, “K” eta “T” bihurtu dira euskaraz, eta “Y” bokala eta “AE” diptongoa, berriz, “I” eta “E”. Hitz-bukaerei dagokionez, honako hau dio 76. arauak:

Izen egokituak erabiltzen direnean, esan bezala, Hego Euskal Herriko literatur tradizio zaharrean erabat nagusi eta Ipar Euskal Herrikoan maiz erabiliak izan diren formak

onartuko dira. Beraz, lehenengo latinezko nominatibo eta genitiboaren bukaerak eta gero euskarazko formaren bukaerak emanda, ondoko aldaketa hauek gauzatuko dira:

-us, -i > -o. Adibidez, lat. Catullus, -i: eusk. Katulo

-a, -ae > -a. Adibidez, lat. Flora, -ae: eusk. Flora

-ns, -ntis > -nte. Adibidez, lat. Constans, -ntis: eusk. Konstante

-o, -onis > -on. Adibidez, lat. Varro, -onis: eusk. Varron

-os, -otis > -ote. Adibidez, lat. Nepos, -otis: eusk. Nepote

-er, -ri > -ro. Adibidez, lat. Alexander, -dri: eusk. Alexandro

Euskaltzaindia, 1997

Hortaz, arau horiek guztiak aplikatu ondoren, honela geratu dira pertsonaia guztien izenak:

<i>Latinez</i>		<i>Euskaraz</i>	<i>Aldaketak</i>
<b>PHAEDRIA</b>	>	<b>FEDRIA</b>	– Latinezko “PH” grafia “F” hizkiarekin eman dugu. – Latinezko “AE” diptongoa “E” bihurtu da.
<b>PARMENO</b>	>	<b>PARMENON</b>	– Latinezko “-O” bukaera “-ON” bihurtu da euskaraz.
<b>THAIS</b>	>	<b>TAIS</b>	– Latinezko “TH” grafia “T” hizkiarekin eman dugu.
<b>GNATHO</b>	>	<b>GNATON</b>	– Latinezko “-O” bukaera “-ON” bihurtu da euskaraz.
<b>CHAEREA</b>	>	<b>KEREA</b>	– Latinezko “CH” grafia “K” hizkiarekin eman dugu euskaraz – Latinezko “AE” diptongoa “E” bihurtu da.
<b>THRASO</b>	>	<b>TRASON</b>	– Latinezko “TH” grafia “T” hizkiarekin eman dugu. – Latinezko “-O” bukaera “-ON” bihurtu da euskaraz.



PYTHIAS	>	PITIAS	– Latinezko “TH” grafia “T” hizkiarekin eman dugu. – Latinezko “Y” grafia “I” hizkiarekin eman dugu
CHREMES	>	KREMES	– Latinezko “CH” grafia “K” hizkiarekin eman dugu euskaraz
ANTIPHO	>	ANTIFON	– Latinezko “-O” bukaera “-ON” bihurtu da euskaraz. – Latinezko “PH” grafia “F” hizkiarekin eman dugu.
DORIAS	>	DORIAS	[Aldaketarik ez]
DORVS	>	DORO	– Latinezko “-US” bukaera “-O” bihurtu da euskaraz.
SANGA	>	SANGA	[Aldaketarik ez]
SOPHRONA	>	SOFRONA	– Latinezko “PH” grafia “F” hizkiarekin eman dugu.
SENEX (DEMEA seu LACHES)	>	AGUREA (Demea edo Lakes)	– Latinezko “CH” grafia “K” hizkiarekin eman dugu euskaraz.
(CANTOR)	>	(KOREGOA)	[Itzulpena]

## 3.2. Erregistroa

### 3.2.1. Hitanoaren erabilera

Goian aipatu dudan legez, Terentzioren komedia honen ezaugarri dira ahozketasuna, ironia eta lagunarteko hizkera, eta horiek islatu ahal izateko, zenbait erabaki hartu behar izan ditut, testuaren erregistro-mailan eragina izan dutenak. Zorionez, euskaraz badugu lagunarteko erregistroa markatzeko baliabide bat: hitanoa.

Hitanoaren erabilera justifikatzeko, lehenik eta behin, Antzinako Greziako gizarteaz jardun beharra dago, antzezlan hau hain zuzen Antzinako Grezian kokatua delako. Garai hartan, gizartea bi multzotan banatuta zegoen: hiritarrak eta ez-hiritarrak. Lehenengo multzokoak hiritar askeak ziren, eta eskubide politikoak zituzten. Bigarren multzoan emakumeak, kanpotarrak eta esklaboak zeuden, eta ez zuten kargu politikoetan parte

hartzeko eskubiderik. Gainera, esklaboak beti haien nagusien menpe zeuden, eta saldu zein erosi zitzaketen.

Xabier Alberdiren (1993: 434) arabera, hitanoaren erabilera hainbat aldagai soziolinguistikoren arabera da:

1. Gaia (hizketagaia).
2. Hizketaldiaren testuingurua.
3. Adina.
4. Belaunaldia.
5. Sexua.
6. Senidetasun-maila.
7. Dialektoa.
8. Talde-kidetasuna.
9. Aginpidea (legal edo politikoa), eskubide eta betebeharren gaineko aginpidea.
10. Sentipenezko elkartasuna, elkartasun psikologikoa (hau da, sinpatia, antipatia, begikotasuna, elkarrenganako ezinikusia, e.a.).

Hortaz, antzezlan honetako hitanoaren erabilera zehazteko, gehienetan, Alberdiren (1993: 435-436) lau aldagai hartu ditut kontuan: batetik, sexua eta senidetasuna daude, aldagai arruntenak eta edozein obraren erregistroa baldintzatu lezaketenak. Bestetik, antzinako Greziako gizarte-antolaketari erreparatuta, aginpidea eta talde-kidetasuna hartu ditut kontuan, zeinek pertsonaia bakoitzaren maila-sozialarekin baitute zerikusia.

Aginpidearen kasuan, hitanoa esklaboen eta jabeen arteko botere-harremana ageriago uzteko erabili dut, eta hauek dira ezarri dizkiodan mugak. Nagusiak esklaboari hika egiten dio beti, eta esklaboak nagusiari, berriz, beti zuka, bere jabeari errespetua erakusteko. Esklaboak inoiz ez dio hika egingo bere jabeari, nahiz eta adarra jotzen ibili eta ironiaz jardun. Gauza bera egin dut hiritarren eta ez-hiritarren arteko elkarrizketetan. Adibidez, hona hemen Fedria eta Parmenonen arteko elkarrizketa bat:

FEDRIA.— A zer azpijoko maltzurra! Orain argi ikusten diat hura gaizto hutsa dela eta ni zorigaitzekoa. Gogaituta naukak, baina aldi berean, kiskali egiten naik haren maitasunak. Eta hala, zuhurtziaz jokatu eta begiak erne izan arren, bizi-bizi eta osasuntsu egon arren, hiltzen ari nauk, zer egin jakin gabe.

PARMENON.— Zer egin? Ez duzu beste aukerarik, bere mendetik ahalik eta prezio onenean askatzea baino. Eta prezio onenean ezin bada, ahal duzunaren truke. Eta ez zaitez atsekabetu.

FEDRIA.— Hori al da hire aholkua? (*Eunukoa*, 70-75)

Talde-kidetasunaren kasuan, hitanoa maila-sozial bereko pertsonaien artean erabili dut, esaterako, esklaboak esklabo bati eta hiritarrak hiritar bati hitz egiten dionerako. Horren adibide gisa, Gnaton eta Parmenonen arteko elkarrizketa bat hautatu dut, biak ez-hiritarrak direlako:

GNATON.— Tira bada, egidak mesedetxo bat: gonbidatu nazak haren etxera (Taisen etxea seinalatuz).

PARMENON.— Ea, sar hadi! Gaur zabalik duk atea, neskabila dakark-eta. (*Eunukoa*, 281-282)

Hor agertzen diren aldagai soziolinguistikoez gain, Xabier Alberdik (1993: 439-440) aipaturiko beste aldagai bat ere hartu dut kontuan: nor bere buruarekin aritzea. Terentzioren antzezlanetan, bakarrizketak oso ohikoak dira pertsonaiek pentsatzen dutena adierazi dezaten, haien gogoetak ikusleei begira kontatzen dituzten arren. Kasu horietan ere, hitanoa iruditu zait aukerarik egokiena.

Jarraian, nire atalean agertzen diren pertsonaiak aurkeztu eta aztertuko ditut, eta ondoren, hika nork norekin egiten duen ikusiko dugu. Hauek dira 1-548 bertso-lerroen tartean agertzen diren pertsonaiak: Tais, Fedria, Parmenon, Kerea, Trason, Gnaton, Pitias, Kremes eta Antifon.

### **3.2.1.1. Tais**

Tais antzezlan honetako protagonistetako bat da. Goi-mailako prostituta bat da, eta Fedria da bere maitalea, baina aldi berean Trasonekin ere badabil, bere ahizpaordea salbatu nahi duelako. Esan genezake ekintza dramatikoaren bi planoen erdian dagoela: batetik, Fedriaren gezurrezko eunukoa jasoko duelako opari, eta bestetik, Trasonek Panfila neskabila emango diolako. Horrela, Taisen inguruan gertatuko da antzezlanaren ekintza nagusia, hain zuzen, neskatilaren bortxaketa. Terentzioren pertsonaia arketipikoei dagokienez, Henryren (1915: 88) arabera, Tais prostituta-heroia da. Gilula ere iritzi berekoa da:

The good courtesan is altruistic, satisfied with as little as she offered, puts the good of others before her own interests, and is capable of true love. (Gilula, 1980: 150)

Horrez gain, ez-hiritarra den arren, badakigu goi-mailako prostituta bat zela, neskameak baititu bere menpe: Pitias, Dorias eta Etiopiako neskametro bat, beharbada bere bezeroen opari izandakoak.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, hona hemen Taisi dagokion erregistroa, solaskide bakoitzaren arabera.

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Fedriari</b>	Zuka	Taisek zuka egiten dio Fedriari. Kasu honetan, pertsonaien <b>generoa</b> da erregistroa baldintzatzen duen aldagaia.
<b>Parmenoni</b>	Zuka	Parmenon eta Tais maila sozial berekoak badira ere (biak ez-hiritarrak), Tais koxka bat gorago dago. Bere etxea du, neskameak ditu eta ez dago inoren esanetara. Hala eta guztiz ere, Taisek ez du inolako aginpiderik Parmenonengan, ezta konfiantzarik ere. Batik bat Xabier Alberdiren (1993: 434) artikuluko 5. eta 8. aldagaien arabera hautatu dut erregistroa; hain zuzen, <b>generoaren</b> eta talde-kidetasunaren arabera.
<b>Trasoni</b>	Zuka	Fedriaren kasuan bezala, <b>generoak</b> erregistro-maila baldintzatzen du.
<b>Pitiasi</b>	Hika - Noka	<b>Aginpidea</b> da erregistroa baldintzatzen duen aldagaia. Pitias Taisen neskamea da, eta botere-harreman hori erakusteko, hika egiten dio Taisek; baina noka, emakumezkoen aditz-formak erabiliz
<b>BERE BURUARI</b>	Hika - Noka	Lehen aipatu bezala, nork <b>bere buruari</b> hika egiten dio, eta Taisek noka egingo duela erabaki dut, jarraian aipatuko ditudan arrazoiengatik.

### **Kasu berezia: Taisek bere buruari noka egitea**

Xabier Alberdiren (1993: 439-440) arabera, tradizioz, gizonezkoek toka egiten diote haien buruari, eta emakumeen kasuan, bi joera ageri dira. Batetik, emakumea bakarrizketan ari denean, baina hizketa inori zuzenduta ez dagoenean, kasu gehienetan toka hitz egingo du. Bestetik, bakarrizketa horretako aktantea emakumea bera baldin bada, orduan noka egingo du. Horrek esan nahi du toketak izaera markatu gabea duela, eta noketak, berriz, markatua. Beste hitzetan, toketa, forma maskulinoaz gain, neutroa ere badela. Aipaturiko Xabier Alberdik, honela idatzi zuen 1996an agitaraturiko tesian (1996: 212):

Gakoa erantzunen interpretazioan egon litekeela uste dugu. Bakarrizketa deritzoguna, funtsean, ez da elkarrizketa berezi bat baizik, norbera bitan banatzen deneko halako fikziozko elkarrizketa, alegia. Gauzak horrela, litekeena da hiztunak bakarrizketan alegiazko erdibitze desberdinak irudikatu ahal izatea bere gogoan eta gero, sortutako barne-irudi horren arabera jokatzeko: hiztunak alegiazko solaskidearen kontzientzia argia izan dezake, hots, bere “alter ego”ari zuzentzen ari zaiola pentsa dezake edota inori bereziki, inongo solaskideri zuzendu gabe mintzo den irudipena izan dezake.

Gai hori eztabaidatua izan da azken urteotan. Adibidez, Fernando Reyk (2013) plazaratutako artikulu batean, azaltzen du *Hezurren ondarea* (2013) liburua itzultzen ari zenean, ez zekiela liburuko protagonistak berekiko nola hitz egingo zuen. Hasieran, tradizioen arabera jokatzeko erabaki zuen, hau da, toka hitz egingo zuela barne-elkarrizketa inori zuzentzen ez zitzaienean, eta noka, bere buruari hitz egingo zionean. Azkenean, ordea, editorearen gomendioz, neutralizatzea erabaki zuten; hain zuzen, zukako adizkiak erabiltzea.

*Eunukoaren* kasuan, duda handiak izan ditut horren inguruan. Oso argi neukan pertsonaiek, hala zegokienean, hika egingo zutela, eta koherentzia mantentzeko, bakarrizketetan ere hala izan behar zuen. Gizonezkoen bakarrizketen kasuan, erantzuna erraza zen; toka hitz egingo zuten. Taisen kasuan, ez nekien ondo nondik nora jo: aukera bat neutralizazioa zen, Fernando Reyk egin bezala, eta bestea, tradizioei kasu egitea. Neutralizazioari dagokionez, ez zitzaidan batere zuzena iruditzen gizonezkoek hika egitea, eta Taisek, nire atalean bakarrizketan egiten duen emakume bakarrak, berriz, zuka egitea. Tradizioari dagokionez, ez nuen batere argi.

Izan ere, gaur egun oso jakina da emakumeek oso presentzia txikia izan dutela literaturan; bai idazle moduan, baita pertsonaia moduan ere. Eta ez da gaur egungo pentsamoldea soilik. Esaterako, pasa den mendean, Virginia Woolfek hausnarketa bat egin zuen gai horren inguruan:

Ba al duzue arrastorik emakumeei buruzko zenbat liburu idazten diren urte baten buruan? Ba al duzue arrastorik horietako zenbat diren gizonak idatziak? Konturatzen al zarete beharbada unibertsoko animaliarik ikertuena izan garela? (Woolf, *Gela bat norberarena*, 2013 [<sup>1</sup>1929]: 43)

Historian zehar egin izan diren literatura lanetan, emakumezko pertsonaiarik egotekotan, beste espezie batekoak balira bezala irudikatuak izan dira; izaki urrun, ezezagun, bitxi eta misteriotsu gisa. Batzuek, Dantek eta Petrarca, adibidez, *donna angelicatatzat* zeuzkaten emakumeak; izaki zerutiar eta puruak zirela uste zuten, eta perfekzioaren sinbolo ziren haientzat. Beste batzuek, berriz, izatez gaizto eta zitalak zirela pentsatzen zuten, eta haiekin ez fidatzea gomendatzen zuten. Horren adibide da erromatar komedietako *meretrix mala* arketipoa, beti gizonak engainatzen ibiltzen den emakumea.

Funtsean, misoginia nagusitu izan da historian zehar egon diren intelektualen artean. Askok idazten zuten emakumeen inguruan, baina inork ez zien emakumeei haien iritzia adierazteko aukerarik ematen, ez literaturan ezta bizitza errealean ere; eta aukera eman zaienean, oso modu hutsalean irudikatu izan dira haien pentsamenduak. Horren harira, Bechdel (1986) komikigilearen test ezaguna aipatu nahiko nuke. Test horren arabera, film bat ikuspuntu feministatik onargarria izateko, filmean gutxienez bi emakumezko pertsonaia egon behar dira; pertsonaia horiek gutxienez behin hitz egin behar dute elkarrekin; eta solas horren gaia gizon bat ez den beste zerbait izan behar da. Testa berdin aplikatu dakioke film bati, nobela bati edo antzerki-lan bati.

*Eunukoaren* kasuan, ez dut uste gaur egungo pentsamoldearen arabera epaitu daitekeenik, zeren antzerki-lana K.a. II. mendekoa da, eta goian aipatu dudana bezala, zenbait elementu berritzaileak izan ziren bere garaian (Panfilaren bortxaketari emandako ikuspuntua, esaterako). Hala ere, Taisek berekiko hitz egiten duenean, ez dut oharkabea pasa zedin nahi izan eta nabarmendu nahi izan dut bere ahotsa, beste guztien artetik. Toka hitz egingo balu, tradizioak agindu bezala, gizonzko pertsonaien artean galduko zen haren pentsamendua ere; baina noka hitz eginda, presentzia

handiagoa eman diodala iruditu zait. Hitanoaren izaera markatua erabiliz, Taisen izaera ere gehiago markatu dudalakoan nago, oso modu sotilean bada ere.

### 3.2.1.2. *Fedria*

Fedria komediako *adulescens* edo gazte arketipikoa da, bere anaia Kerearekin batera. Erromatar komedietako konbentzioen arabera, mutil gazteak zeharo maiteminduta egoten dira eta edozer egingo lukete kuttunarekin egoteko. Fedria hiritar askea da, eta beti izaten du alboan Parmenon, bere familiako esklaboa. Esklaboak 262. bertso lerroan adierazten duenez, lehen bere nagusia oso gazte zentzudun eta serioa omen zen, baina maitemindu zenetik, burua galdu zuen guztiz. Izan ere, mutila Tais prostitutarekin ibiltzen da; eta biak daude oso maiteminduta. Antzezlaneko egiazko maitasuna dugu bikote horrena (Henry, 1915: 87). Baina, Fedriaren zoritxarrerako, Trason soldadurekin lehiatu beharra dauka. Horregatik, biak ari zaizkio Taisi opariak egiten.

Hona hemen Fedriari dagokion erregistroa:

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Taisi</b>	Zuka	Fedriak ere Taisi zuka egingo dio. Nahiz eta maila-sozial desberdinekoak diren, haien harremana ez da boterean oinarritzen, maitasunean baizik. <b>Generoaren</b> aldagaia izan da hemen erregistroa baldintzatu duena.
<b>Parmenoni</b>	Hika - Toka	Parmenon Fedriaren familiako esklaboa izan da beti, eta haren menpe dago. Bere esklaboari hika hitz egitea boterea erakusteko modu bat da. Hortaz, <b>aginpidea</b> izan da erregistroa baldintzatu duen aldagaia.

### 3.2.1.3. *Parmenon*

Parmenon Fedriaren eta Kerearen familiako esklaboa da. Erromatar komedietan, eta batez ere Plautorenetan, esklaboak umore-errekurtso gisa erabiltzen dituzte: izaeraz azeri samarrak izaten dira, oso maltzurki jokutzen dute, eta gehienetan, haien jabeak engainatzen eta bazterrak nahasten ibiltzen dira. Parmenon, ordea, ezinezkoa da arketipo horretan sailkatzea. Egia da bere nagusiei adarra jotzen diela askotan, eta oso pertsonaia ironikoa dela, baina hala ere, badaki ongia eta gaizkia bereizten, 382. bertso-lerroan erakusten digunez. Kereak eunuko mozarrotzea erabakitzen duenean, Parmenonek hori egitetik saihestu nahi du. Komeni zaionaren arabera hartzen ditu erabakiak, baina ez du inor mintzeko asmorik:

Parmeno, again contrary to the dramatic habits of the scheming slave, decides to reveal the truth to the senex of the comedy and cover up for himself (Karakasis, 2013: 213)

Hortaz, Parmenonen izaera zein maila-soziala kontuan hartuta, hau da dagokion erregistroa.

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Fedriari</b>	Zuka	Parmenon Fedriaren esklaboa den arren, hasieran hika egingo ziola erabaki nuen, izan ere, obra osoan zehar oso modu ironiko eta burlatian hitz egiten dio bere nagusiari. Hala ere, azkenean zuka egingo ziola erabaki nuen, zeren, esklabo batek ezin dio inoiz bere esklabotasunari uko egin. Parmenonek bere nagusiari zuka egitea mendekotasuna erakusteko modua da. Hortaz, <b>aginpidea</b> da hemen kontuan hartu dudana aldagaia.
<b>Taisi</b>	Zuka	Kasu honetan, <b>generoa</b> da eragina izan duen aldagaia.
<b>Trasoni</b>	Zuka	Trason hiritar askea da, eta gainera, soldadua. Parmenonek errespetua erakutsi behar dio bera baino autoritate handiagoa duen bati. Horregatik, <b>aginpidea</b> da eragina duen aldagaia.
<b>Kereari</b>	Zuka	Fedriaren kasuan bezala, Parmenonek zuka egingo



		dio bere nagusi Kereari. <b>Aginpidea</b> da eragina izan duen aldagaia.
<b>Gnaton</b>	Hika - Toka	Gnaton Trasonen parasittoa da, hau da, Trasonen lepotik bizi den kliente bat. Parasitoak ere ez-hiritarrak direnez gero, Parmenonek hika egiten dio. <b>Talde-kidetasun</b> aldagaiak izan du eragina hemen.
<b>BERE BURUARI</b>	Hika - Toka	Gizonek toka egiten diote haien buruari.

#### 3.2.1.4. *Kerea*

Kerea komediako bigarren *adulescens* edo gazte maitemindua da. Fedriaren anaia gaztea da, eta hura bezala hiritar askea. Kerea efebo bat da; hots, hamasei urteko mutil gazte bat, hirietako zaintza-zerbitzuan lan egiten duena. Kerea ekintza dramatikoaren egilea da. Izan ere, kalean paseatzen ari zela, Panfila ikusi du, Taisen bi esklaboekin batera, eta neskatilarekin maitemindu da zeharo. Zer egin ez zekiela, bere esklabo Parmenoni eskatu dio laguntza neskatilaren ondoan egon ahal izateko, eta honek eunuko mozorrotzea proposatu dio, txantxetan; baina Kereak, *adulescens* maitemindua den heinean, burua galdu du jada, eta edozer egiteko gai da bere maitearekin egon ahal izateko. Hortaz, Taisen etxean sartu da, eta neskatila bortxatu du; hori da obra honetako ekintza dramatikoa. Krimen hori egin ondoren, bere kide Antifoni kontatu dio, egindakoaz harro.

Antzinako greziar komedietan, askotan agertzen ziren bortxaketak, zeinak antzerkiaren argumentuko oinarritzko elementuak baitziren. Krimen horiek jai-giroan gertatu ohi ziren, eta bortxatzaileak alkoholari leporatzen zion gertatutakoaren errua. *Eunukoaren* kasuan, ordea, egunez gertatzen da, ez dago jairik, eta gainera, Kerea ez dago mozkor; aitzitik, oso kontziente da egindakoaz. Christensonek (2013: 266) dioenez, Kerea gehiago lotsatzen da eunuko jantziak (esklabo jantziak) daramatzalako, inor bortxatu duelako baino. Honako hau dio Christensonek, horren inguruan:

Most striking of all, Terence here meticulously guides his audience through the mental processes of a sexual predator simultaneously plotting and justifying his actions. (Christenson, 2013: 264)

Terentziok ondo aztertu du eta erakutsi digu bortxatzailearen psikologia *Eunukoa* antzezlanean, argi utziz hura dela errudun bakarra. Terentziok emandako ikuspuntu hori, goian aipatu bezala, oso berritzailea izan zen garai hartako beste antzerki-lanekiko.

Beraz, Kerearen maila soziala eta izaera kontuan hartuta, hona hemen hari dagokion erregistroa:

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Parmenoni</b>	Hika	Parmenon Kerearen eta Fedriaren familiako esklaboa da, eta hortaz, hika egiten dio, boterea erakusteko asmoz. <b>Aginpidea</b> da eragina izan duen aldagaia.
<b>BERE BURUARI</b>	Hika - Toka	Lehen aipatu bezala, nork <b>bere buruari</b> hika egiten dio, eta mutila denez, toka egingo du.

### 3.2.1.5. *Trason*

Trason antzezlan honetako *miles gloriosus* edo militar harroputza da, eta hortaz, hiritar askea da. Oso ahoberoa da, etengabe ari baita bere lorpenez hizketan. Gizon agurgarritzat dauka bere burua, baina ez da oso adimen handikoa; eta harroputza denez, oso gutxik nahi dute alboan eduki. Bere ondoan ibiltzen diren bakarrak Gnaton eta Tais dira, baina modu interesatuan. Lehenengoa bere parasittoa da, eta lan bakarra dauka: Trason lausengatzea, bizibidea lortzeko. Bigarrena Tais da, eta Trasonekin ibiltzen da, baina soilik hura delako Panfila eros diezaiokeen bakarra. Hala ere, Taisekin maiteminduta dago, eta Fedriarekin lehiatzen da, neska nork eskuratuko. Denek manipulatzan dute haien nahierara, eta hala ere, Trason ez da ezertaz jabetzen, lanpetuta dabilelako bere burua zuritzen (Henry, 1915: 79).

Azken finean, militar harroputza umore-errekurtso bat da, eta Terentziok pertsonaia buragarri gisa sartu du *Eunukoa* antzezlanean.

Hori guztia kontuan hartuta, hona hemen Trasoni dagokion erregistroa:

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Taisi</b>	Zuka	Trason hiritarra da, eta Tais ez-hiritarra. Hala ere, Fedriarekin gertatzen den bezala, Taisekin maiteminduta dago honako hau ere, eta hortaz, haien harremana ez da boterean oinarritzen. Horregatik, zuka egiten dio. <b>Generoa</b> da eragina izan duen aldagaia.
<b>Gnaton</b>	Hika - Toka	Gnaton Trasonen parasitua da; eta Trason berriz, Gnatonen nagusia. Hortaz, maila-sozial desberdinekoak direnez gero, <b>aginpide</b> aldagaia hartu dut kontuan.
<b>Parmenoni</b>	Hika - Toka	Parmenon esklabo bat da, Trason baino askoz maila baxuagokoa. Boterea erakusteko, soldaduak hika egiten dio, eta hortaz, <b>aginpidea</b> izan da eragina duen aldagaia.

### 3.2.1.6. *Gnaton*

Lehen aipatu bezala, Gnaton Trasonen lepotik bizi den *cliens* edo kliente bat da, zeinei “parasito” deitzen baitzitzaien, arbuioz. Patroiek babes eta laguntza ekonomikoa eskaintzen zieten klienteei, eta zenbat eta kliente gehiago eduki, orduan eta prestigio handiagoa izaten zuten. Klienteak, ordea, ez ziren esklaboak, baina leialtasuna eta debozioa zor zieten haien nagusiei, eta horregatik, haien esanetara egoten ziren.

Gnaton antzerki-lan honetako parasito lausengaria da. Antzezlanean esaten duenez, ondasun guztiak galdu omen zituen, baina estrategia bat dauka bizibidea ateratzeko: besteak lausengatzea.

Pertsona batzuek beti lehenengoak izan nahi ditek kontu guztietan, baina ez ditek inoiz lortzen; haiengana hurbiltzen nauk ni. [...] Etengabe esaten zieat zeinen graziosoak diren. Haiek zer esan, nik hura txalotu; eta gero kontrakoa esaten baditek ere, hori ere txalotzen diat. (*Eunukoa*, 249-251)

Militar harroputza eta parasito lausengaria Menandroren *Lausengaria* obratik atera zituen Terentziok, eta biak dira pertsonaia “bufonikoak”, beste era batera esanda,

ikusleei barre eragiteko osagaiak dira. Hala ere, ezin da ukatu istoriorako ezinbestekoak direnik (Christenson, 2013: 277).

Hori guztia kontuan hartuta, hona hemen Gnatoni dagokion erregistroa.

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Trasoni</b>	Zuka	Gnatonek zuka egiten dio nagusiarri, errespetua erakusteko. Hemen, <b>aginpidea</b> da eragina izan duen aldagaia
<b>Parmenoni</b>	Hika - Toka	Parmenon eta Gnaton ez-hiritarrak dira, eta gainera, oso modu burlatian hitz egiten diote elkarri. <b>Taldekidetasun</b> aldagaia hartu dut kontuan hemen.
<b>BERE BURUARI</b>	Hika - Toka	Nork bere buruari hika egiten dio, gizonezkoen kasuan toka.

### 3.2.1.7. *Pitias*

Pitias Taisen neskamea da, Doriasekin batera. Bi maitaleen opariak jaso ondoren, Taisek Panfila ondo zaintzeko eskatu die bere neskameei, bera kanpoan dabilen bitartean (500-505 bertso-lerroak). Denbora-tarte horretan, ordea, gezurrezko eunukoak neskatila bortxatu du. Orduan, zer gertatu den jakin ondoren, Pitias Parmenonen bila joan da, haren ideia izan baitzen Kerea eunuko mozarrotzea, eta azalpen eske joan zaio. Mendekua hartzeko asmoz, engainatu egin du. Hortaz, Pitias da antzezlan honetako *servus fallax* edo esklabo iruzurtia (Karakasis, 2013: 213).

Pitiasen maila-soziala eta izaera kontuan hartuta, hona hemen hari dagokion erregistroa:

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Taisi</b>	Zuka	Pitiasek zuka egiten dio bere nagusi Taisi, errespetua zor diolako. <b>Aginpidea</b> da eragina izan duen aldagaia.
<b>Doriasi</b>	Hika - Noka	Pitias eta Dorias esklaboak dira, eta gainera, etxe berean egiten dute lan. Hori kontuan izanda, <b>taldekidetasuna</b> da eragina izan duen aldagaia.

<b>Kremesi</b>	Zuka	Kremes Panfilaren neba da, eta hiritarra da. Pitiasek errespetua erakutsi behar dio bera baino maila-sozial altuagoko pertsona bati, eta hortaz, <b>aginpidea</b> da kontuan hartutako aldagaia.
----------------	------	--

### 3.2.1.8. *Kremes*

Kremes Panfilaren neba nagusia da, eta Taisek harengana bidali nahi zuen neskatila, familiari itzuli ahal izateko. Oso gutxi dakigu Kremesi buruz, bigarren mailako pertsonaia bat delako. Henryren ustez (1915: 93), pentsatzekoa da landa-aldeko baserritar bat bide zela, nahiko zakarra delako bere maneretan eta, itxuraz, ikasigabea. Hala ere, badakigu Kremes hiritar askea zela, eta beraz, bere arreba Panfila ere bai. Horregatik aztoratzen dira hainbeste pertsonaiak jabetzen direnean Panfila bortxatu dutela, eta ez dela esklabo “ziztrin” bat, hiritar bat baizik.

Hori guztia kontuan hartuta, hona hemen Kremesi dagokion erregistroa:

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>Pitiasi</b>	Hika - Noka	Kremes hiritar askea da, eta Pitias, berriz, neskame soil bat. Horregatik, hika egiten dio Kremesek. Horrez gain, oso modu zakarrean hitz egiten dio, ondo hezita ez dagoelako eta haserre dagoelako (530-540). Hortaz, <b>aginpidea</b> eta <b>testuingurua</b> dira eragina izan duten aldagaiak.
<b>BERE BURUARI</b>	Hika - Toka	Nork bere buruari hika egiten dio (gizonezkoak toka).

### 3.2.1.9. *Antifon*

Antifon ere bigarren mailako pertsonaia bat da. Kerearen lagun mina da, eta efeboa da honako hau ere; hiritar askea, beraz. Ez du eragin handirik argumentuan; adituen ustez, Kerearen krimenaren kontaketa, monologo bat izan behar zuena, dialogo bihurtzeko txertatu du Terentziok antezlanean (Henry, 1915: 75; Brown, 2013: 22). Horrez gain, *deus ex machina* gisa jokatzen du Kerearentzat, izan ere, haren kontakizuna entzun ondoren, bere etxean ezkututzen du, inork harrapatu ez dezan (Henry, 1915: 75-76).

Niri egokitu zaidan partean (1-548) bere buruarekin baino ez du hitz egiten, Kerearen bila ari delako. Hona hemen Antifoni dagokion erregistroa:

Solaskideak	Erregistro mota	Zergatikoa: aldagai soziolinguistikoa
<b>BERE BURUARI</b>	Hika - Toka	Antifonek hika (toka) egiten dio bere buruari.

### 3.2.2. Berorikako tratamendua 270-271 bertso-lerroetan.

Beroriketa euskaraz erabil daitekeen tratamendurik errespetuzkoena da. Hala ere, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Laburra* (2002: 55) liburuan adierazten denez, gaur egun nahiko galduta dago izenordain horien erabilera; baina testuinguru oso formaletan erabil daitekeela esaten dute. OEHko datuen arabera, asko erabili izan da euskal literaturaren historian zehar, Lazarragaren idazkietatik gaur egun arte. Gehienetan, autoritateengana zuzentzeko erabili izan da; agintariei edo jainkoari hitz egiteko.

*Eunukoa* antzezlanean, beroriketa formula aproposa izan zatekeen esklaboen eta nagusien arteko elkarriketarako, baina iruditu zait tratamendu hori zaharkituegia zegoela egungo euskaran idatzitako itzulpen baterako. Horregatik, zuketa aukeratu dut begirunezko adierazpenetan. Hala ere, 270-271 bertso-lerroetan, salbuespen bat egin dut. Bertan, Gnaton parasittoa Parmenon esklaboari zuzentzen zaio:

**GNATON.— Gnatonek zor zaion begirunez agurtzen du berori, Parmenon, ene adiskide mina. Zer moduz?**

PARMENON.— Zutik

GNATON.— Ikusten diat, bai. Zerbait desatsegina ikusi duk, ala?

PARMENON.— Bai, hi. (*Eunukoa*, 270-275)

Kasu honetan, itxura batean, badirudi Gnatonek errespetu handia diola Parmenoni, nahiz eta esklabo bat den, behe-mailako gizaki bat. Hala ere, hurrengo bertso-lerroak ikusi ondoren, agerikoa da ironiaz ari zaiola. Izan ere, Gnatonek eta Parmenonek mespretxuz hitz egiten diote elkarri, elkarren lehiakide direlako, eta hizketa formala Parmenoni adarra jotzeko modu bat baino ez da izan. Nik erabilitako itzulpenak

konsultatuz gero, konturatuko gara atal horretan erabilitako hizkera ohikoa baino formalagoa dela, hizkuntza guztietan:

Rubio Fernándezen itzulpena (1991):

GNATÓN.— Con todo respeto saluda Gnatón a su mejor amigo Parmenón. ¿Cómo andamos?

Marouzearen itzulpena (1979):

GNATHON.— À son éminent Parménon, Gnathon présente ses salutations empressées. Comment va-t-on?

Barsbyren itzulpena (2001):

GNA Gnatho offers his warmest greetings to his most esteemed friend Parmeno. How are you doing?

Hiru bertsiio horietako lehen esaldia zeharo formala da, eta bigarren esaldia, berriz, oso lagunartekoa. Nire itzulpenean kontraste hori islatzen saiatu naiz. Beroriketa lehen esaldiko hizketa formal horren euskarazko baliokidea dela esango nuke, eta aproposa iruditu zait segmentu horretako erregistro-aldaketa puztua imitatzeko. Bigarren esaldian, berriz, lagunarteko hizkera erabili dut nik ere, “¿cómo andamos?”, “comment va-t-on?” eta “how are you doing?” formulen oso antzekoa: “zer moduz?”.

### **3.3. Elementu paratestualak**

#### **3.3.1. Akotazioak**

Antzezlan guztietan bezala, *Eunukoan* ere oharrak ageri dira, zuzendari eta aktoreentzako argibideekin. Ohar horiei akotazio deritze eta parentesien artean agertu ohi dira. Horiek ere itzuli behar izan ditut (berez Terentziok barik ondorengo editoreek gehituak izan arren).

Lehen pausoa zein akotazio itzuli eta zein ez erabakitzea izan da. Izan ere, itzulpen guztietan ez dira ohar berberak agertzen, editore-itzultzaile bakoitzak erabaki baitu non ziren ezinbestekoak eta non ez, eta horregatik, nik neuk ere aukeratu behar izan dut zeintzuk itzuli. Honela sailkatu ditut itzultitako akotazioak: lehenik adberbialak eta bigarrenik aditzarekin eratuak.

Lehen multzoan, etengabe errepikatzen diren bi akotazio agertzen dira. Rubio Fernándezen (1991) eta Barsbyren (2001) itzulpenak aukeratu ditut, horiek erakusteko:

Lehenengoak, “(Con ironía)” eta “(Ironically)” akotazioak izan dira, eta horiek euskaraz (*Ironikoki*) formarekin itzultzea erabaki dut. Konplikazioak bigarrenarekin izan dira. Itzulpenetan “(Aparte)” eta “(To himself)” agertzen zirenean, bi aukera nituen: gaztelaniazko bertsioan bezala itzultzea, “(Aparte)”, edo ingelesezkoa oinarri hartuta hitzez hitz itzultzea: “(bere buruari)”.

Hala ere, XX. Mendeko Eukararen Corpus Estatistikoan bilaturik, Gipuzkoako antzerkian “(Berekiko)” akotazioa erabili izan dela ikusiko dugu. OEhk honela definitzen du hitza:

II. (Adv.).1. Para sí, para sus adentros. «Berekiko hizketan ari da» (G-azp)

Bestalde, OEhn ere antzerki akotazioen adibideak ageri dira. Adibidez:

«Iru andre batean, mediku jauna; (berekiko) ia bat betiko emen gelditzen ote zaidan.»  
Lab EEguna 69.

Hortaz, niri ere soluzio egokia iruditu zait nire itzulpenerako:

FEDRIA.— Alde hemendik! Ez hadi lelokeriatan hasi, Parmenon. (*Berekiko*) Aurre egin behar zioat ene izaera makal honi, ala Herkules, azkarregi amore ematen diat-eta. (*Eunukoa*, 220-225)

Bigarren multzoan aditzez osaturiko akotazioak ageri dira. Adibidez, 205. bertso-lerroan, honako hau ageri da Rubio Fernándezen (1991) eta Barsbyren (2001) bertsioetan: “(Sale.)” eta “(She exits into her house, leaving th stage empty.)”. Biak dira izen eta aditzez osatutako esaldiak, eta indikatiboko orainean idatzita daude. Nik hasieran, gauza bera egitea erabaki nuen eta honela itzuli nuen: “(Etxera sartu da)”. Hala ere, gauza jakina da euskarazko teatro-tradizio zaharrena Zuberoakoa dela eta, hala pastoraletako nola astolasterretako akotazioetan, beti erabili da agintera. Hona hemen hiru adibide:

EDIPA.

240 [...] ]

*Batailla eta Giganta eror oyhu handy bateky eta Giganta mintça.* (Bilbao Telletxea, 1996: 274)

JULIEN *jaiky iratçarriricq.*



67 [...] ]

*Retira. Sonez.* (Loidi Garitano, 2003-2004: 47)

MARKO

[...]

*Retira khexii.*

*Ama ere gero. Sonez.*

*Albina paketareki jelki eta minza.* (Urkizu, 1988)

Horrez gain, gaur egungo adibideren bat bilatzeko, *Militar Harroputza* itzulpena (Bilbao, Garcia, Utrilla 2018) kontsultatu dut eta han ere hala jokatu dutela ikusi dut.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, nik ere agintera erabiltzea erabaki dut: “(*Etxera sartu*)”.

### 3.3.2. Terentzioren hitzaurrea

Antzerki honetako berezitasun bat Terentzioren hasierako hitzaurrea da, zeina oso polemikoa izan baitzen bere garaian, Luszio poetaren kritikei emandako erantzuna delako. Bertan, Terentziok lehenik bere buruaz hitz egiten du:

Batzuk, ahalik eta pertsona zintzo gehienei atsegin egiten saiatzen dira, baita ahalik eta pertsona gutxienei mina ematen ere, eta horien artean dago gure poeta hau. (*Eunukoa*, 1-3)

Ondoren, Luszio poetari zuzentzen zaio:

Berak eszenaratu zuen Menandroren *Mamua*. (*Eunukoa*, 9)

Azkenik, *Eunukoa* obraz mintzatzen da:

Egileak onartzen du bi pertsonaia horiek grekozko lanetik bere *Eunukorako* hartu izana. (*Eunukoa*, 31-32)

Hori guztia azaltzeko, hirugarren pertsona erabiltzen du, bai bere buruaz baita Lusziori buruz hitz egiteko ere, eta hori izan da hitzaurrea euskaratzeko zailtasun nagusia, zeren nekez ulertzen baitzen nori buruz ari den atal bakoitzean, testuingurua zein den jakin gabe.

Hori hala izanik, hiru aukera nituen: lehena, aditzen pertsona aldatzea, eta lehen pertsona erabiltzea bere buruaz hitz egiteko, eta bigarren pertsona Lusziore mintzatzeko. Lehen aukera hori ez zitzaidan oso egokia iruditu, jatorrizkoaren ñabardura galduko zuelako horrela. Bigarren aukera, izen guztiak itzulpenean esplizitatzea zen, irakurleek errazki identifikatzeko aktanteak. Hori eginez gero, ordea, jatorrizkoa gehiegi aldatuko nukeela uste dut, eta batez ere Luszioren izena aipatzen banuen, zeren testu honetako grazia baita poetak berak bere burua aipatutzat jotzea. Hortaz, azken aukerara jo nuen: ezinbestekoa iruditu zaidanean, ohar argigarriak idaztea, irakurleak informazioa ez galtzeko, baina testuaren izaera erabat aldatu gabe. *Eunukoa* antzezlaneko 7. eta 8. oinoharretan aurkitu daiteke informazio hori.

### 3.4. Lexikoa

Nire asmoa ahalik eta itzulpen zehatzena ontzea izan da, baina *Eunukoaren* ezaugarri batzuek itzulpen-prozesua zaildu eta moteldu egin dute. Ezaugarri horien artean, lexikoa dago. Zenbait hitz berezi samarrak dira, eta bilaketa handiago bat egin behar izan dut haietzako baliokiderik egokiena aurkitzeko. Hona hemen hitz horietako batzuk:

#### 3.4.1. *Virgo, -inis*

Antzezlan osoan zehar, *virgo, -inis* hitza erabili du Terentziok Panfilari buruz hitz egiteko. Segura Munguíaeren hiztegian kontsultatuz gero, honako adiera hau dagokio *virgo* hitzari, kasu honetan: ‘*mujer joven, doncella, muchacha*’. Eta Vox-Spes hiztegian, beste adiera nagusi hau: ‘*virgen, muchacha*’. Hortaz, neska gazte bati egiten dio erreferentzia, eta zehazki, sexu harremanik izan ez duenari.

Oso hitz espezifiko baten aurrean nengoen, beraz, eta aukera bat zehatz-mehatz itzultzea zen, sorburu testuari fidel izateko: *birjina*. Hala ere, *birjina* hitzak konnotazio erlijiosoegiak ditu hala euskal kulturen nola beste kultura askotan, horregatik, zubi-testuetan ez da horrelako zuzeneko itzulpenik ageri. Rubio Fernándezen itzulpenean (1991), *muchacha* hitza agertzen da; Barsbyrenean (2001), soilik *girl* erabiltzen da; eta Marouzearenean (1979), *jeune fille*. Hiru horietan hitz orokorrago bat hautatu dute, birjintasunaren adiera alboratuz, eta irakurleen esku uzten dute hori deskubritzea. Fontana Elbojonean (2008), ordea, *muchacha* ez ezik *doncella* hitza ere agertzen da. Hona hemen DRAEn *doncella* hitzaren lehen adiera: ‘*mujer virgen*’.

Beste hizkuntzetan ageri ziren aukera guztiak ikusita, lehenik eta behin, gaztelaniazko *doncellaren* antzeko hitz baten bila ibili nintzen. OEhk *neskaso* hitza jasotzen du, Oihenartek eta Orixek erabilia, adiera horrekin. Hauek dira hitz horien agerpen bakarrak:

**Neskaso** bat amatako, / Galileako / Nazareten hazia. (Oihenart, 1657)

**Neskaso** gurbil orde, ergel aunitz / ez bait-nituke nai andre. (Orixe, 1934)

Egungo Testuen Corpora kontsultatu ondoren, ikusi nuen gaur egun hiru agerpen baino ez dituela izan hitz horrek, eta Ereduzko Prosa Gaur corpusean, berriz, bat ere ez. Hori gutxi balitz, ez du Euskaltzaindiaren Hiztegiak jasotzen. Hortaz, hitzaren tradiziozko zein egungo erabilpena ikusita, aukera hori baztertzea erabaki nuen.

Bigarrenik, Fontana Elbojen ereduari jarraituz, *doncella* hitzaren euskarazko maileguak, *dontzeilak*, xede testuan ondo funtzionatu zezakeela pentsatu nuen. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, emakume birjina bati erreferentzia egiteko erabiltzen da. Horrez gain OEhn hainbat adibide agertzen dira, Lazarragarengandik hasita, Gabriel Arestiren testuetaraino:

Apain ze bedi / oi ta **donzella** galantik. (Lazarraga, 1202)

**Donzellek** izandu dituen gorputzeko ta barrengo neke ta naigaberik andienak. (Mendiburu, ~1760)

**Donzella** bat erortzen bazan, naiz alarguna, gizonen batekin (J.A. Mogel, 1800)

**Dontzella** garbia, / ukitu-gabea (Aresti, 1960)

Hala eta guztiz ere, OEhren arabera, gehienbat hegoaldean erabili izan da hitza, eta gainera, oso agerpen gutxi ditu EPGn, 51 baino ez. Hortaz, nik ahalik eta xede hizkuntza gaurkotuena eta hedatuena erabili nahi izan dudanez, aukera hori ere baztertu nuen.

Azkenik, hori guztia ikusita, nire gainerako zubi-testuetako prozedura erabiltzea erabaki dut, hau da, hitz orokorrago bat erabiltzea. Euskaraz baditugu hainbat hitz ‘*neska gazte*’ esateko, haien artean, *neskato*, *neskatxa* eta *neskatila*. Hirurak Euskaltzaindiaren Hiztegian bilatuz gero, konturatuko gara hiztegiak hitz guztietara bideratuko gaituela:

**neskato**

1 iz. Neskata, neskatila. *Neskato eta mutikoak. Neskato begi-beltz ederra.*

### **neskatxa**

1 iz. Neska; neska gaztetxoa. Ik. neskatila; neskato. *Mutilak eta neskatxak. Hogei urteko neskatxa batek.*

### **neskatila**

iz. Neskata. *Hamalau urteko neskatila sendo bat. Neskatilak eta mutilak elkarrekin*

Hala ere, ez zait iruditzen *neskato* hitzak *neskatila* eta *neskatxa* hitzen ñabardura berbera duenik. *Neskato* bat, *neskatila* eta *neskatxa* bat baino gazteagoa delakoan nago, eta hori Euskaltzaindiaren Hiztegiko adibideetan ere ikus daiteke. Adibidean, '*Neskato eta mutikoak*' agertzen da, eta beste bietan '*mutilak eta neskatxak*' eta '*neskatilak eta mutilak*'. Horrek esan nahi du *neskato* hitzaren analogo maskulinoa *mutiko* dela, hots, 'mutil koskorra', umea. Besteena *mutila* da, beraz, helduagoa.

Horregatik, *neskatxa* eta *neskatilaren* artean aukeratu behar izan dut, eta horretarako, prozedura berbera erabili dut. *Neskatxa* hitza orokorragoa da, berdin erabili liteke nerabe bati edo 'hogei urteko neska bati' erreferentzia egiteko. *Neskatila*, berriz soilik nerabeentzat dela esango nuke, eta hala agertzen da adibidean ere: 'Hamalau urteko neskatila sendo bat'. Panfilak hamasei urte dituenek, hori iruditu zait hitzik egokiena, neskaren gaztetasuna gogora ekartzen digulako, eta beraz, birjina dela aditzera eman dezakeelako, esplizituki adierazita ez dagoen arren.

#### **3.4.2. ex Aethiopia ancillula (165)**

*Eunukoa* antzezlaneko 165. bertso-lerroan, *ex Aethiopia ancillula* esapiderekin, Fedriak Taisi oparitutako esklaboetako bati egiten zaio erreferentzia. Terentziok atzizki txikigarri bat erantsi dio *ancilla*, *-ae* hitzari, samurtasun kutsu bat emateko asmoz. *Ancillula*, *-ae* hitza euskaratzeko, zubi-testuak kontsultatu ditut, beste hizkuntzetan nola itzuli duten jakiteko eta hortik ideiak ateratzeko.

Alde batetik, Rubio Fernándezek (1991) eta Barsbyk (2001) txikigarririk gabe eman dute: *sierva de Etiopía* eta *slave girl from Ethiopia*. Bestalde, Fontana Elboj (2008) eta Marouzeau (1979) apur bat gehiago hurbildu dira, samurtasun ñabardura mantentzeko asmoz: *une petite servant d’Ethiopie* eta *esclavita de Etiopía*.

Horietatik guztietatik, Fontana Elbojena iruditu zitzaidan egokiena, eta horregatik, nire itzulpena horretan oinarritzea erabaki nuen, hau da, euskaraz ere atzizki txikigarria (*-txo*) erabiltzea. Hala ere, hor arazo bat zegoen, izan ere, euskarazko *esklabo* hitzean ez

dago genero-markarik, eta hortaz, *Etiopiako esklabotxo* itzultzen banuen, irakurleak informazioa galduko zuen. Beraz, Barsbyk ingelesez egin bezala, generoa guztiz esplizitatu behar nuen; adibidez, *neska esklabo etiopiarra* edo *Etiopiako neska esklabotxoaren* gisako itzulpen bat egitea. Hori eginez gero, ordea, sintagma luzeegia zela iruditzen zitzaidan, nahasgarriegia.

Hortaz, *esklabo* hitza beste batekin ordezkatzera erabaki nuen, eta jatorrizko bertsiora (*ancilla*, *-ae*) itzuli nintzen. Segura Munguía-ren hiztegian, honako itzulpenak ematen dizkio *ancilla* hitzari, nire zubi-testuetan agertzen direnez gain: *criada* eta *servienta*. Euskaraz, baditugu *otsein* eta *mirabe* hitzak hori bera adierazteko, baina baita soilik emakumezko mirabeei erreferentzia egiten diena ere: *neskame*. Hortaz, *neskame* hitza erabiltzea erabaki nuen, txikigarri eta guzti: *Etiopiako neskametxo*. Horrela, samurtasun kutsua eta genero-marka mantendu egin dira, jatorrizko testutik hurbil.

### 3.4.3. *Piscator, -oris eta cetarius, -ii (257)*

257. bertso-lerroan, Gnatonek azokako saltzaileak zerrendatzen ditu, eta horien artean, *cetarii* eta *piscatores* aipatzen ditu, hurrenez hurren. Biak dira arrain-saltzaileak, baina pentsatzekoa da arrain mota desberdinak saltzen dituztela. Vox-Spes hiztegian, *cetarius* ‘vendedor de peces grandes’ dakar, eta *piscator* ‘pescador, pescadero’. Segura Munguía-ren hiztegian begiratu gero, ordea, ikusiko dugu ez duela egiten horrelako bereizketarik:

**cetarius, -i** [*cetus*], *m.*, vendedor de peces.

**piscator, -oris** *m*

ESP. *pescador*, h. 1250, GALL. *pescadeiro* [...] EUSK *piskatore* [...]

Nik erabilitako zubi-testu guztietan, bereizketa garbi bat ageri da. Rubio Fernándezek (1991) *pescadores* (‘arrantzaleak’) eta *sardineras* (‘sardina saltzaileak’) bezala itzuli ditu; Barsbyk (2001) *fishmongers* (‘arrain saltzaileak’) eta *spratsellers* (‘arrain txikien saltzaileak’) terminoak eman ditu; eta Marouzeauk (1979), *mareyeurs* (‘arrain handien saltzaileak’) eta *poissonniers* (‘arrain saltzaileak’). Itzulpen horiek ikusita, argi dago *cetarii* direlakoek itsas-animalia handiak saltzen zituztela, eta beharbada zetazeoak, izenaren erroa oinarri hartuz gero:

**cetus, -i** [gr. *ketos*], *m.*, cetáceo; monstruo marino [ballena, delfín, etc.].

*Piscatoresek*, berriz, arrain txikiagoak saltzen zituztela pentsa dezakegu, Barsbyren eta Rubio Fernándezen itzulpenak ikusiz gero. Beraz, itzulpen posible bat *arrain handien saltzaileak* edo *arrain txikien saltzaileak* izan zitekeen. Hala ere, ez zait oso egokia iruditzen, zeren, batetik, sintagma luzeegiak dira enumerazio batean txertatzeko, eta bestetik, zetazeoak, teknikoki, ez dira arrainak, ugaztunak baizik. Ezin da jakin erromatarrek zoologiaren inguruko ezagutza sakonik zutenik, baina badaezpada, aukera hori baztertua erabaki dut, hori ez baita zuzena gaur egun. Orduan, beste aukera bat *zetazeo saltzaileak* bezala itzultzea zen, eta bestea, *arrain saltzaile* moduan uztea. Hala ere, *zetazeo* hitza espezializatuegia iruditu zait honelako antzezlan baterako eta aukera hori ere baztertu egin dut.

Itzulpen posible horiek baztertu ondoren, Fontana Elbojen (2008) bertsiora jo dut, zeinak honela eman baititu bi termino horiek: *pescadores de red* eta *pescadores de caña*. Horrez gain, ohar argigarri bat txertatu du, Donatoren aipu batekin:

Donato, por su parte, respecto a los *piscatores*, afirma: *qui recentem piscem praebent. Cetarii: qui cete, id est magnos pisces venditant et bolonas exercent*. (Fontana Elboj, 2008: 329)

Beraz, *piscatoresek* haiek berek harrapatutako arrain txikiak saltzen zituztenez, pentsa genezake, Fontana Elbojek bezala, kanaberaz harrapatzen zituztela, eta horregatik, nik ere horrela itzultzea erabaki dut: *kanabera-arrantzaleak*. *Cetariien* kasuan, Donatok dioenez, zetazeoak, itsas-animalia handiak, harrapatzen zituzten, eta ondoren arrain-postuetan saltzen zituzten. Horregatik, Fontana Elbojen itzulpena ere egokia iruditzen zait, ofizioz arrantzale direnak eskuarki sareekin lan egiten irudikatzen ditugulako, itsas-zabalean. Hortaz, *cetariiren* euskarazko baliokidea *sare-arrantzaleak* izango zela erabaki dut. Egia da ‘saltzaile’ adiera galdu egin duela xede-testuan, baina testuinguruan ulertzen da saltzen ari direla, eta ez arrantzatzen:

GNATON.— (*Berekiko*) Eta honetaz ari ginela, merkatura iritsi gintuan. Bertako saltzaileak izugarri pozten zituan ni ikustez: **sare-arrantzaleak**, harakinak, sukaldariak, hestebete-saltzaileak, **kanabera-arrantzaleak**... (*Eunukoa*, 257)

Horrez gain, ohar-argigarri bat ere txertatu diot, irakurleak bereizketa horren arrazoia zein den jakin dezan (33. oin-oharrean aurkituko du informazio hori).

#### 3.4.4. *Scortum, -i* (424)

Segura Munguía-ren hiztegian *scortum* hitza ‘azal’ edo ‘larru’ izan daitekeela agertzen da, baina horrez gain, mespretxuz ‘prostituta’ ere esan nahi duela dio. Vox-Spe hiztegian, zuzenean “prostituta” adiera baino ez dakar. Kasu honetan, frantsesezko Gaffioten hiztegia ere kontsultatu dut:

**scortum, ī, n.**, ¶ 1 peau, cuir : TERT. *Pall.* 4 ¶ 2 courtisane, prostituée, femme publique : PL. *Amph.* 288 ; CIC. *Mil.* 55, etc. || un prostitué : CIC. *Sest.* 39 ; *Phil.* 2, 44.

Ikus dezagun hitza, Terentzioren antzezlaneko testuinguruan (424-425 bertso-lerroak):

*forte habui scortum: coepit ad id adludere  
et me inridere*

TRASÓN.— [...] Tenía yo casualmente conmigo una **ramera**: él se puso a gastarle bromas y a reirse de mí. (Rubio Fernández, 1991)

Rubio Fernándezek (1991) *ramera* hitza erabili du *scortumen* baliokide gisa, zeina, DRAEren arabera, hitz peioratiboa den, jatorrizkoa bezala. Hitz-aukeraketa berdina egin du Fontana Elbojek (2008) ere, zeinaren bertsioan ere *ramera* hitza agertzen den. Beste hizkuntzetako bertsioak kontsultatuz gero, ordea, konturatuko gara neutralizatu nahi izan dutela hitzaren zakartasuna, eta horregatik, *woman* eta *fille* hitzak agertzen dira Barsbyren (2001) eta Marouzearen (1979) itzulpenetan.

Euskarazko itzulpenari dagokionez, nire asmoa sorburu testuari fidel jokatzeari izan da. Ez dut Terentzioren diskurtsoa inola ere leundu nahi izan, *neska* edo *emakume* bezalako hitz orokorrak erabiliz eta, beraz, *scortumentzako* baliokide zehatzago bat bilatu nuen. Antzezlan osoan zehar, *prostituta* hitzarekin itzuli dut latinezko *meretrix*, baina kasu honetan, erregistroak lagunartekoagoa behar zuen izan, *meretrix* / *scortum* bereizketa markatzeko. Elhuyar Hiztegiaren *ramera* bilatuz gero, *urdanga*, *emagald* eta *puta* agertuko zaizkigu, beste batzuen artean. Lehen hitz hori, *urdanga*, baztertu egin nuen, zeren ‘prostituta’ adieraz gain, ‘txerri’ edo ‘zikin’ esateko erabili liteke, irain moduan, eta kasu honetan, Trason ez da Tais iraintzen ari, aipatu egiten du soilik. *Emagald*, berriz, hitz neutroa da, *prostitutaren* gisakoa, eta beraz, baztertu egin nuen hori ere. Azkenik, *puta* hitza erabiltzea erabaki nuen, *scortum* edo *ramera* hitzen kutsu peioratiboa duelako. Izan ere, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren, ‘arrunkeria’ marka erantsi

diote hitzari, *emagald* hitzak ez duena. Hori gutxi balitz, 3.701 agerraldi ditu ETCn eta EPG korpusean, berriz, 431, honako hauek tartean:

- Artean eguerdia izanagatik, **puta** dezente zegoen atari eta kale-kantoietan.
- Oroitzapenotan murgilduta, **puta** bat irten zen horma zarpiatutako ezkaratza ilun batetik, eta brastakoan hartu ninduen, tranbiaren astinaldi batek nire gainera bota izan
- Han inguruan behar zuen aste batzuk lehenago ezagutu nuen **puten** kaleak. (Anjel Lertxundi, 2006)
- Bere frantses zerratuarekin eta soinean dauzkan arropa koloretsuekin irudi dik **puta** bat...
- Beharbada **puta** bat baizik ez duk Paris horretan.
- Beti gauza bera zen: Parisera abiatzen zirenek ez omen zuten trufa garratza baizik merezi, hirira joaten zirelako, mutikoak mutil izateko eta neskak, nola ez, **puta** bilakatzeko. (Itxaro Borda, 2005)

Kasu horietan guztietan, ez dute *puta* irain moduan erabiltzen, aitzitik, prostituten inguruan hitz egiten ari dira, baina erregistro zatar batez. Beraz, xede-testurako egokia iruditu zait, 424. bertso-lerroan:

TRASON.— Rodastarra eta biok mahai berean geundean eserita. Kasualitatez, **puta** bat ekarri nian nirekin, eta mutila txantxetan ibili zitzaioan, eta niri adarra jotzen ere bai. (*Eunukoa*, 422-424)

### 3.4.5. *Pulpamentum*, -i (426)

426. bertso-lerroan, *pulpamentum* hitza agertzen da, hitz-joko batean. Segura Munguíaaren arabera, hau da hitz horren definizioa: “trozo [de carne o de pescado]”. Eta Vox-Spes hiztegian “plato de vianda; condimento || porción”. Hona hemen bi zubi-testutan eman dioten itzulpena, testuingurua zein den ikusteko:

Fontana Elboj (2008):

TRASÓN.—[...] Aún eres una liebre, ¿y ya vas buscando **estofado**?

Marouzeau (1979):

THRASON.—[...] tu est toi-même un lièvre et tu cherches du **râble**?



Segmentu honetan, Trasonek Fedriari barre egiten dio, Tais gogatzan saiatzen ari delako, eta homosexualitateari egiten dio erreferentzia, esanez Fedria oraindik erbia (gazteegia) dela haragi bila (emakumeen bila) hasteko. Bi testu horietan ‘haragi’ hitzaren hiponimoak erabili dituzte itzutzailleek: *estofado* (‘(okela) erregosi(a)’) eta *râble* (‘solomo’). Gainerakoetan, ehizarekin zerikusia duten terminoak erabili dituzte, adibidez, Rubio Fernándezek (1991) *caza de pelo* moduan itzuli du, eta Barsbyk (2001), berriz, galdera birformulatu egin du: *do you hunt for game?*. Hortaz, hasieran euskaraz ere *haragi* hitza erabiltzea pentsatu nuen:

TRASON.— [...] Erbi ziztrin bat izanik, **haragi** bila habil? (*Eunukoa*, 426)

Hala ere, *haragi* hitza barik, egokiagoa iruditu zaigu *untxi* hitza *pulpamentumen* baliokide gisa, bi arrazoiengatik. Batetik, erbiak eta untxiak ordena bereko animaliak direlako, baina aldi berean desberdinak, eta gertutasun-desberdintasun horrek hitz-joko osatuago bat egiteko aukera ematen digu. Gainera, bestetik, *untxi* hitzak emakumaren genitalak iradokiko dizkio irakurleari, hain zuzen Fedria neska bila dabilela aditzera emanek. Horregatik, uste dut hitz horrek oso ondo funtzionatu lezakeela xede testuan:

TRASON.— [...] Erbi ziztrin bat izanik, **untxi** bila habil? (*Eunukoa*, 426)

### 3.4.6. *Homo*, *-inis* = “**tipo**”

*Homo* hitzak, latinez, ‘gizaki’ esan nahi du, kasu gehienetan. Hala ere, *Eunukoan* sarritan, pertsonaia bat mespretxuz aipatzeko erabiltzen dute. Ikus ditzagun zenbait zubi-testu:

PARMENÓN.— [...] ¡Qué **individuo** más listo, por Hércules! (Fontana Elboj, 2008)

PAR[...] A smart **fellow** indeed! (Barsby, 2001)

PARMENÓN.— ¡Por dios! Cretino y ruin **personaje** es este; (Rubio Fernández, 1991)

Hori euskaratzeko, argi zegoen lagunarteko hitza izan behar zuela erregistro aldetik, ahozko elkarrizketetan maiz erabiltzen dena. Horren baliokide gisa, *morroi* edo *gizaseme* hitzak ditugu euskaraz. Lehen hitzari dagokionez, hala ere, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, gehien bat Bizkaian erabiltzen da, eta xede testurako erabiliz gero, beharbada irakurleak ‘mirabe’ adierarekin nahastuko luke. Bigarren hitzari dagokionez, neutroegia iruditu zait ahozko elkarrizketa baterako, eta ni hitz zakarrago baten bila ari nintzen.

Horregatik erabaki nuen *tipo* hitza erabiliko nuela horien orde. Kontua da, Euskaltzaindiaren Hiztegiak jasotzen ez duen arren, gaur egun oso zabalduta dagoela testu idatzietako lagunarteko solasetan. EPG corpusean begiratzuz gero, konturatuko gara 953 agerraldi izan dituela eta ETCn 8.365 (ez denak adiera honekin); baina inportanteena da hitz hori hemen dagokigun adieran eta halako testuinguruan erabili duten autore eta itzultzaileak autoritate direla nire ustez (Irene Aldasoro, Joxe Austin Arrieta, Harkaitz Cano, Xabier Olarra, Joseba Sarrionandia...). Adibidez:

- **Tipo** hura kabroi hutsa baitzen.
- **Tipo** hura zen..., nola esango nizuke, ba...
- Baietz ba, egin zizkigun sermoi haien guztien ondoren, aizu, gogoeta egin beharra zuela esaten ez dio ba **tipoak**, eta zer eta lantokiko neska harekin oheratzeko gero. (Gemma Lluch / Antton Olano, 2002)
- **Tipoa** ez nuen oso gustuko, baina Monaren laguna baldin bazen, agoantatu beharra nuen.
- Zer iruditzen zaizue izugarritzko bestondoa duen **tipo** honen hitzaldia?
- Esan nahi dut ez zarela inondik ere Hollywoodeko **tipo** arrunt bat. (Horace McCoy / Fernando Rey, 2002)

Esango nuke, hitz horri esker, sorburu testuko lagunarteko erregistroa eta mespretxuzko ñabardura mantendu egiten direla xede testuan ere:

TAIS.— (*Fedriari*) Lehenik eta behin, **tipo** honek badaki sekretuak gordetzen? (*Eunukoa*, 100)

GNATON.— [...] gaur, hona bidean, nire klase eta maila bereko **tipo** batekin topo egin diat. (*Eunukoa*, 235)

PARMENON.— (*Berekiko*) Bai **tipo** azkarra, ala Herkules! (*Eunukoa*, 245)

PARMENON.— (*Ikusleei begira*) Jainkoen izenean! Bai **tipo** kirten eta nazkagarria! Eta bestea berriz, gezurri galanta! (*Eunukoa*, 415-420)

PARMENON.— (*Gnaton*) Isil hadi, doilorretan doilorrena haiz-eta. **Tipo** hau (Trason seinalatuz) lausengatzeko gai izan bahaiz, kapaz haiz hildakoen errautsetatik ere janaria lapurtzeko. (*Eunukoa*, 490)

### 3.5. Kultura-erreferentziak

Goian aipatu dudan legez, *Eunukoa* greziar kulturaz ‘kontaminatutako’ obra latindar bat da, eta horregatik, bi gizarte horietako kultura-erreferentziez josita dago. Kontuan hartuta itzulpen honen hartzaileak maizenik literaturzale kultu baina latinik ez dakitenak izan daitezkeela, eta seguruenik gizarte grekolatindarraren ezagutza mugatua dutenak, zenbaitetan komenigarria iruditu zait oin-ohar argigarriak txertatzea, hartzailearen beharrak eta ezagutza-maila zeintzuk bide diren gogoan izanda. Zenbait kasutan, nire zubi-testuetako oin-oharren egokitzapena egin dut, eta bestetan, nik neuk txertatu dizkiot oharrak, beharrezkoa ikusi dudan tokietan.

10 motatako oharrak gehitu ditut, batik bat: erromatar antzezlanen ezaugarriak, erromatar errituak, greziar errituak, greziar ohiturak, erromatar gizarteko estatus sozialak eta haien ezaugarriak, greziar eta erromatar poetak, greziar leku-izenak, greziar txanponak, greziar jainko eta jainkosak, eta antzezlanari buruzko argibideak. Haietako bat, eunukoaren inguruko oharra, bi aldiz ageri da. Izan ere, hitzaurrean eta argumentuan aipatzen da eunukoa, baina pentsatuz irakurle batzuek zuzenean antzezlanara irakurriko dutela, sarrera gisakoa irakurri gabe, barruan ere txertatu egin dut obraren giltzarria delako, ulermena bermatzeko asmoz.

Hona hemen ohar guztien zerrenda:

- |   |  |
|---|--|
| 1. Erromatar antzezlanak: didaskalia                  | 12. Herkules   |
| 2. Edil kurul   | 13. Erromatar antzezlanak: <i>mala meretrix</i>      |
| 3. Liberto  | 14. Polux  |
| 4. Parasito   | 15. Horazioren esaera bati egindako erreferentzia    |
| 5. Eunuko   | 16. Samos  |
| 6. Efebo  | 17. Rodas  |
| 7. Antzezlanari buruzko argibideak: Terentzios ari da | 18. Atika  |
| 8. Antzezlanari buruzko argibideak: Lusizio poeta     | 19. Sunion   |
| 9. Menandro   | 20. Antzezlanari buruzko argibideak: Trasonez ari da |
| 10. Erromatar antzezlanak: arketipoak                 | 21. Karia  |
| 11. Antzezlanari buruzko argibideak: Taisez ari da.   | 22. Lira   |

- |   |  |
|---|--|
| 23. Prostituten arte bereizgarriak                        | 38. Efeboen lana                                 |
| 24. Antzezlanari buruzko argibideak:<br>Eufemismoa        | 39. Antzezlanari buruzko argibideak:<br>Agurea   |
| 25. Etiopia   | 40. Parmenonen gela                              |
| 26. Eunuko  | 41. Hitz-jokoa                                   |
| 27. Mina  | 42. Greziar <i>Hetairiak</i>                     |
| 28. Erromatarren landetxeak                               | 43. Hileta-erritu erromatarra                    |
| 29. <i>Bona meretrix</i>                                  | 44. Erromatar esaera baten esanahia              |
| 30. Antzezlanari buruzko argibideak:<br>Panfila           | 45. Soldaduak                                    |
| 31. Antzezlanari buruzko argibideak:<br>Parasitoez ari da | 46. Erreferentzia poetikoa                       |
| 32. Sukaldariak   | 47. Gerrarako elefanteak                         |
| 33. Sare-arrantzaleak eta kanabera-<br>arrantzaleak       | 48. Homosexualitateari egindako<br>erreferentzia |
| 34. “Gnatonikoak”   | 49. Esklaboen prezioak                           |
| 35. Antzezlanari buruzko argibideak:<br>hitz-jokoa        | 50. Gizon askearen itxura                        |
| 36. <i>Paraklausithyron</i> topikoa                       | 51. Esklaboen heziketa                           |
| 37. Pireo   | 52. Antzezlanari buruzko argibidea:<br>ironia    |
|   | 53. Erromatar errituak                           |
|   | 54. Atenasko ohiturak                            |

Oharroi esker, irakurleak *Eunukoa* hobeto gozatuko duelakoan nago, informaziorik galdu gabe.

## 4. Itzulpena

### EUNUKOA

#### DIDASKALIA<sup>1</sup>

Joko Megalesiarretan antzeztu da, honako edil kurul<sup>2</sup> hauen aurrean: Luzio Postumio Albino eta Luzio Kornelio Merula. Antzezenaren zuzendariak Luzio Ambivio Turpion eta Luzio Hatilio Prenestekoa izan dira. Musika Flakorena da, Klaudioren libertoarena<sup>3</sup>, eta bi zeharkako flauta jo dituzte horretarako. Grekozko jatorrizkoa Menandrorena zen. Egile honen bigarren komedia dugu hau, zeina Marko Valerio eta Gaio Fanio kontsulen agintaldian idatzi baitzuen.

#### PERTSONAIAK

FEDRIA, gaztea, Taisen maitalea.

PARMENON, Fedriaren esklaboa.

TAIS, prostituta.

GNATON, Trasonen parasitoa<sup>4</sup>.

KEREA, gaztea, Fedriaren anaia eta Panfilaren maitalea.

TRASON, militarra, Fedriaren lehiakidea.

PITIAS, Taisen neskamea.

KREMES, gaztea, Panfilaren neba.

ANTIFON, gaztea.

DORIAS, Panfilaren neskamea.

DORO, eunukoa<sup>5</sup>.

SANGA, Trasonen esklaboa.

SOFRONA, Panfilaren inudea.

AGUREA, Lakes edo Demea, Fedria eta Kerearen aita.

---

<sup>1</sup>Antzerkian erabiltzen den terminoa. Bertan, autoreak edo editoreak antzezenaz ematen dituen argibideak agertzen dira.

<sup>2</sup> Erromatar Errepublikan, edil kurulak ziren ospakizunak antolatzeko ardura zuten magistratuak.

<sup>3</sup> Askatasuna jaso duen esklaboa.

<sup>4</sup> Antzinako Erroman, maila sozioekonomiko baxuko zenbait pertsona aberatsen babespean zeuden, *cliens* edo bezero moduan. Arbuioz, *parasito* esaten zitzaien.

<sup>5</sup> Gizon irendua. Antzinaroan, goi mailako administrazio-karguak izaten zituzten, edo bestela, emakumeak zaintzeko eta entretenitzeko lana izaten zuten.

## HITZ EGITEN EZ DUTEN PERTSONAIAK

SIMALION, Trasonen esklaboa.

DONAX, Trasonen esklaboa.

SIRISKO, Trasonen esklaboa.

## ARGUMENTUA

Trason militarrek neskatile bat ekarri dio Taisi, honek eskatuta, bere ahizpa zela uste baitzuen (hala ere, militarri ez dio esan nor den). Neskatile atenastarra da. Aldi berean, Fedriak eunuko bat eman dio opari bere maitale Taisi, eta ondoren, landa-aldera alde egin du; izan ere, Taisek Trasoni lehentasuna eman nahi dio egun batzuetan, neskatile entregatu diezaion. Bestalde, efebo<sup>6</sup> bat, Fedriaren anaia, zeharo maitemindu da Taisi oparitu dioten neskatileekin, eta, Parmenonek proposatuta, eunuko jantzi da bere maitearen ondoan egoteko. Eunuko mozorrotuta, Taisen etxean sartu da eta neskatile bortxatu du. Orduan, mutil atenastar bat agertu da, neskatilearen neba, eta gertatutakoa ikusita, bere arreba efeboarekin ezkonarazi du. Ondoren, Trason akordio batera iritsi da Fedriarekin, erreguka ibili ondoren.

## HITZAURREA

Batzuk, ahalik eta pertsona zintzo gehienei atsegin egiten saiatzen dira, baita ahalik eta pertsona gutxienei mina ematen ere, eta horien artean dago gure poeta hau<sup>7</sup>. Hori bai, inork uste badu kritika gogorak jaso dituela haren partetik, pentsa dezala ez zirela “kritikak” izan, “erantzunak” baizik, zeren hura izan zen erasoka hasi zen lehena. Poeta hark, lehenik, greziar komediak fidelki itzuli zituen, baina aldi berean, haren kabuz sortzen saiatu zen, baldarki bazen ere. Horren ondorioz, greziar komedia bikainetatik, latindar komedia ez hain bikainak atera zituen. Berak<sup>8</sup> eszenaratu zuen Menandroren<sup>9</sup> *Mamua*, eta *Altxorra*-ko salatuaren pertsonaia antzeztu zuenean, lehenik urrea 10 desiratzeko arrazoiak erakutsarazi zizkion defentsa gisa, eta auzi-jartzaileak horren

---

<sup>6</sup> Grezian, gazte edo nerabea. Normalean, 18-20 urtekoak izaten ziren efebo, baina Terentziok 16ra jaitsi dio adina, eunuko mozorrotu ahal izateko.

<sup>7</sup> Terentzio bere buruaz ari da, hirugarren pertsonan idatzi duen arren.

<sup>8</sup> Seguruena Lusizio idazleari buruz ari da eta horregatik aipatzen du *Mamua* antzezlana.

<sup>9</sup> Menandro (Atenas, K.a. 342 - K.a. 291) greziar komediagile ezagunenetakoa da, Aristofaneseekin batera. Terentziok asko miresten zuen haren lana, eta horregatik, bere antzerkietatik atera ohi zituen ideiak.

ondoren azaldu zuen zergatik zen berea altxorra eta nola agertu zen bere aitaren hilobian. Hemendik aurrera, ez dezala bere burua engainatu, eta ez dezala pentsa “ni arriskuz kanpo nago; ezin dit ezer gehiago leporatu”. Ez dadila erratu, argi esango baitiot: utzi zirikatzeari. Baditut oraindik kontu asko esateko, baina momentuz barkatuko dizkiot. Hori bai, erasoka jarraituz gero, aditzera emango ditut kontu horiek, ezbairik gabe.

Gaurko obra, Menandroren *Eunukoa*, edilek erosi zuten, eta poeta hura moldatu egin zen 20 entsegura joateko. Magistratuen aurrean antzezten hasi zirenean, honako hau esan zuen, garrasika: “Poeta barik, lapur hutsa da komedia antzeztu duena; baina ez du lortu besteok engainatzea. *Lausengaria* Nevio eta Plautoren komedia zahar bat da, eta honek handik atera ditu parasittoa eta militarra pertsonaiak”.

Hor akatsik egon bada, ohartarazpenik ez ematea izan da poetaren akatsa. Ez da, inola ere ez, nahita egindako plagio akatsa. Hala da, eta berehala konturatuko zarete, gainera. Badago Menandroren obra bat, *Lausengaria* izenekoa, eta bertan parasito lausengari bat 30 eta militar harroputz bat agertzen dira. Egileak onartzen du bi pertsonaia horiek grekozko lanetik bere *Eunukorako* hartu izana. Hala ere, argi utzi nahi du hark ez zekiela inondik inora ere pertsonaia horiek lehendik latinera ekarriak izan zirenik. Gainera, zilegi ez bada pertsonaia horiek erabiltzea, nola izango da zilegiago beste batzuk ere 40 obran sartzea? Esklaboa harat-honatean, andere handi zintzoak, prostituta gaiztoak, parasito tripontziak, militar harroputza, trukaturiko haurrak, gizon zaharrak engainatzen dituzten esklaboak, maitasuna, gorrotoa, susmoak<sup>10</sup>... Azken batean, dena dago esanda jada. Beraz, egin kasu esandakoari eta barkaiezue egungo poetei, antzinakoek egiten zuten berdina egiten badute. Jarri arreta eta entzun isilik, horrela ulertuko baituzue *Eunukoa* zertan datzan.

---

<sup>10</sup> Erromatar antzerkian, pertsonaiak arketipikoak izaten ziren; hau da, jada finkatuta zeuden konbentzioen arabera eraikitzen zen haien izaera. Plautoren komedietan, adibidez, etengabe errepikatzen dira. Terentziok horietako batzuk zerrendatu ditu hemen.

## I. EKITALDIA

### LEHEN AGERRALDIA

#### *Fedria eta Parmenon*

FEDRIA.— Zer egingo diat baina? Ez al nauk beregana<sup>11</sup> joan behar, oraingoan berak deitu zidak-eta? Edo prestatu beharko al nauk beste prostituten irainak saihesteko? Bota naik, eta deitu egin zidak berriro. Itzuliko nauk? Ezta pentsatu ere!

PARMENON.— Hobe horretarako gai bazina, ala Herkules<sup>12</sup>; hori litzateke aukerarik onena eta eraginkorra. Baina hori egiten saiatuz gero, gogor eutsi beharko diozu zeure hitzari, zeren, etsi egiten baduzu, eta inork eskatu gabe beregana itzultzen bazara, argi utziko diozu maiteminduta zaudela eta amore eman duzula; eta kito orduan, zureak egin du. Orduan konturatuko da bera dela garaile, eta gogoz egingo du barre zure kontura. Beraz, nagusi, ondo hausnartu esandakoa, oraindik baduzu horretarako astia. Ezin duzu logikaren bitartez ebatzi logikarik eta arrazoirik ez duena. Maitasuna okerrez josita dago, eta haren parte dira irainak, susmoak, etsaitasuna, tregoak, liskarrak, eta azkenik, berriz ere bakea. Ez zentzurik bilatu zentzurik ez duenari, bestela, ero zentzudun baten moduan jokatu duzu. Eta orain, badakit amorratuta pentsatuko duzula: “Ni-hari..., hark-beste..., hark-ni..., ez zidan... Utz nazazu bakean! Nahiago nuke hilda banengo! Ikusiko du nor naizen.” Neska horrek negar malko batekin itzaliko du zure sumina, ala Herkules, eta malko hori isurrazteko begiak maltzurki igurtziko ditu! Eta hori gutxi balitz, baietz zuri leporatu errua; eta areago, baietz zu izan barkamena eskatzen lehena. 50

FEDRIA.— A zer azpijoko maltzurra! Orain argi ikusten diat hura gaizto hutsa<sup>13</sup> dela eta ni zorigaitzekoa. Gogaituta naukak, baina aldi berean, kiskali egiten naik haren maitasunak. Eta hala, zuhurtziaz jokatu eta begiak erne izan arren, bizi-bizi eta osasuntsu egon arren, hiltzen ari nauk, zer egin jakin gabe. 60

PARMENON.— Zer egin? Ez duzu beste aukerarik, bere mendetik ahalik eta prezio onenean askatzea baino. Eta prezio onenean ezin bada, ahal duzunaren truke. Eta ez zaitez atsekabetu.

---

<sup>11</sup>Tais prostitutat ari da.

<sup>12</sup>Herakles greziar heroiares izen latindarra. Zeus jainkoaren eta Alkmene gizakiaren semea da.

<sup>13</sup>Plautoren komedietan, sarritan agertzen da *meretrix mala* ‘prostituta gaiztoa’ arketipoa. Obra horietan, prostitutak pertsonaia zitalak izaten dira eta gizonak engainatzen ibiltzen dira, nahi dutena lortzeko. Terentzioren komedia honetan, hala ere, *bona meretrix* agertuko zaigu; alegia, prostituta zintzo eta maitekorra.



FEDRIA.— Hori al da hire aholkua?

PARMENON.— Bai; zuhurki jokatzen baduzu, ez dizkiozu maitasunari dituenak baino arazo gehiago erantsiko, eta berezkoak dituenak ere, zentzuz pairatuko dituzu. (*Taisek* 80 *atea ireki bitartean*) Baina hemen dator gure lurretako izurria, guk jaso beharreko uztak beretzat hartzen dituenak.

## BIGARREN AGERRALDIA

*Tais, Fedria eta Parmenon*

TAIS.— (*Berekiko*) O, errukarria ni! Fedriak gaizki hartu bide din atzo etxera sartzen utzi ez izana, eta asmo txarrez egin nuela uste din.

FEDRIA.— Parmenon, beldurrez dardarka nagok bera ikuste hutsarekin!

PARMENON.— Izan zaitez kementsu; hurbildu zaitez sugarretara... (*Berekiko*) Laster behar baino gehiago sutuko haiz-eta.

TAIS.— Nor dabil hor? Hara! Hemen al zeunden, ene Fedria? Zergatik geratu zara hor, geldirik? Zergatik ez zara zuzenean sartu?

PARMENO.— (*Fedriari, ahapeka*) Ezta aipatu ere ate-danbatekoa.

TAIS.— Zergatik zaude isilik?

FEDRIA.— (*Ironikoki*) Bada, niretzat beti zabalik daukazulako atea, eta antza denez, neu naizelako zure maitale bakarra.

TAIS.— Ahaztu ezazu gai hori orain.

90

FEDRIA.— Nola “ahaztuko” dut, bada? O, Tais, Tais, maiteko ahal nauzu nik maite zaitudan beste, horrela nik bezainbeste sufritu dezazun zuk ere, edo bestela, nik inportantziarik eman ez diezaiodan gertatutakoari.

TAIS.— Ene bihotza, ene Fedria, ez zaitez goibeldu, arren! Ala Polux<sup>14</sup>, zin dagit hori ez nuela egin beste inor maite edo desiratzen nuelako! Halabeharrez jokatu nuen horrela.

PARMENON.— (*Ironikoki*) Koitadua! Maitasunez bota zenuen etxetik, ezta?

TAIS.— Kopla horiekin zatoz, Parmeno? Tira! (*Fedriari*) Entzun zergatik eskatu nizun hona etortzeko.

FEDRIA.— Tira, ondo da.

TAIS.— (*Fedriari*) Lehenik eta behin, tipo honek badaki sekretuak gordetzen? 100

PARMENON.— Nik? Ezin hobeki. Baina, aizu, sekretua gordeko dizut, baldintza batekin: entzuten dudana egia bada, niretzat gordeko dut eta ez diot inori esango; oster, kontatzen didazuna gezurra, hutsala edo alegiazkoa bada, segituan zabalduko dut lau haizetara. Pitzatu beste jario ditut<sup>15</sup>. Hortaz, esazu egia, ni isilik egotea nahi baduzu.

TAIS.— Gure ama Samostarra<sup>16</sup> zen; Rodasen<sup>17</sup> bizi zen...

PARMENON.— Hori isilpean gordetzeko modukoa da.

TAIS.— Bertako merkatari batek neskabila bat oparitu zion nire amari, hementxe, Atikan<sup>18</sup>, bahitutakoa.

FEDRIA.— Hiritarra zen? 110

TAIS.— Baietz uste dut; ez gaude ziur. Bazekien bere amaren izena esaten, baita aitarena ere, baina bere jatorriari eta bestelako ezaugarriei dagokienez, ez zuen haien berri; ezta horiek jakiteko modurik ere, artean gazteegia zen-eta. Merkatariak zioenez, neskabila saldu zioten piratek Sunionen<sup>19</sup> harrapatu omen zuten. Gure amak hartu zuenean, zinez ahalegindu zen neskabilak heziketa bikaina jaso zezan; bere alaba balitz

---

<sup>14</sup> Zeusen eta Leda espartar erreginaren seme bikietako bat. Lau seme-alaba izan zituzten: batetik, Helena Troiakoa eta Polux, biak heroi hilezkorak; eta bestetik, hilkorak: Klimnestra eta Kastor, azken hori Ledaren bikia.

<sup>15</sup> Horazioren esaera bati egindako erreferentzia (*Sat* II 6-46).

<sup>16</sup> Samos greziar uharte bat da, Egeo itsasoan kokatua. Esporada artxipelagoaren parte da.

<sup>17</sup> Greziar uhartea, Dodeskanos artxipelagoko uharterik handiena.

<sup>18</sup> Antzinako Greziako eskualde historikoa.

<sup>19</sup> Egeo itsasoko lurmuturra, Atenasko hego-mendebaldean kokatua. Greziar mitologian, Egeok bertatik egin omen zuen salto itsasora.

bezala tratatzen zuen. Jendeak nire ahizpa zela pentsatzen zuen. Ni kanpotar batekin etorri nintzen hona, artean nire bezero bakarra zenarekin, eta beregandik jaso nuen orain daukadan guztia.

120

PARMENON.— Biak dira gezurra eta kontatu egingo ditut.

TAIS.— Zergatik, bada?

PARMENON.— Zu kontentatzeko ez zen aski bezero bakar bat, eta hura ere ez zen izan opariak ekarri zizkizun bakarra. Honek ere (*Fedria seinalatuz*) dohaintza on eta ugariak egin zizkizun.

TAIS.— Hala da, baina utz iezadazue bukatzen. Garai hartan, nirekin maitemindu zen militarra<sup>20</sup> Kariara<sup>21</sup> abiatu zen. Orduantxe ezagutu zintudan, eta zuk zeuk ikusi duzu zeinen harreman estua izan dugun geroztik; baita dena konfiantza osoz kontatzen dizudala ere.

FEDRIA.— Hori ere ez du gordeko Parmenonek.

PARMENON.— (*Ironikoki*) Ai ene! Zalantzazkoa da, ala?

TAIS.— Entzun, mesedez. Hantxe hil zitzaigun gure ama orain dela gutxi. Bere neba pixka bat diruzalea da, eta konturatu zenean neskatile izugarri ederra zela eta lira<sup>22</sup> jotzen zekiela<sup>23</sup>, merkatura eraman eta saldu egin zuen, irabazi ugari ateratzeko asmotan. Zorionez, bertan zegoen nire laguna, eta opari moduan erosi zidan, ezjakinean eta oharkabean. Hona itzultitakoan, zurekin ere banabilela konturatu denean, aitzakia bila ibili zait neskatile ez emateko. Esaten du ziur dakienean bera nahiago dudala zu baino, eta neskatile eman eta gero abandonatuko dudan arriskurik ez dagoela, orduan oparituko didala; baina horren beldur da. Hala ere, nik susmatzen dut neskatile desiratzen duela.

130

140

FEDRIA.— Beste ezer gertatu da?

---

<sup>20</sup> Trasonez ari da.

<sup>21</sup> Anatoliaren hego-mendebaldeko kostako eskualdea, zeina Lidia eta Liziaren artean baitago, Rodas uhartearen aurrean.

<sup>22</sup> Antzinako harizko musika tresna, bi eskuez pultsatuz jotzen dena. Greziar mitologian, hainbat pertsonaiek jotzen dute; haien artean, Apolok eta Orfeok, adibidez.

<sup>23</sup> Neskatilek Taisen amaren etxean ikasi zuen lira jotzen, zeina prostituten arte bereizgarrietako bat baiten. Hori da bere amak emandako "heziketa bikaina".

TAIS.— Ezer berririk ez, ikertzen ibili naiz-eta<sup>24</sup>. Beraz, ene Fedria, baditut arrazoi dezente neskaitila neureganatu nahi izateko: batetik, nire ahizpatzat daukadalako; eta bestetik, bere familiarengana bidali eta itzuli ahal izateko. Bakarrik nago, ez daukat lagunik ezta seniderik ere hemen; horregatik, Fedria, komeni zait lagunen bat egitea, nire mesederako. Erraztu iezadazu lana, laztana, faborez. Utz iezaiozu hari nire etxean lehentasuna edukitzen datozen egunotan. (*Fedria isilik*) Ez didazu erantzungo? 150

FEDRIA.— Doilor alaena! Nola erantzungo dizut bada, nirekin horrela portatu ondoren?

PARMENON.— Bai horixe, Fedria, bejondeizula! Azkenean lortu duzu haserretzea, gizon egin zara!

FEDRIA.— Uste duzu ez nekiela nora iritsi behar zinen? (*Tais imitatuz*) “Hemen harrapatu zuten txikia zela; amak alaba baten moduan hazi zuen; ahizpak ginela pentsatzen zuten; neureganatu nahi dut bere senideei itzultzeko...” Funtsean, honela laburtu daitezke azalpen horiek guztiak: ni etxetik bota, eta hura etxera ekarri. Zergatik, ordea, ez bada ni baino maiteago duzulako eta beldur zarelako hona ekarritako neskaitilak ez ote dizun gizon zoragarri hori ostuko? 160

TAIS.— Ni, horren beldur?

FEDRIA.— Zerk kezkatzen zaitu, bestela? Esazu. Hura da opariak egiten dizkizun bakarra, ala? Ez naiz behar bezain bihotz-zabala izan zurekin? Neskametxo etiopiar<sup>25</sup> bat nahi zenuela esan zenidanean, ez al nintzen bada haren bila joan, nire zeregin guztiak alde batera utzita? Gero, eunuko<sup>26</sup> bat nahi zenuela esan zenidan, erreginek soilik izaten dituztelako; eta ez al nizun bat aurkitu? Hogei minaren<sup>27</sup> truke lortu nituen biak atzo! Arbuiatu ninduzun arren, gogoan izan ditut zure kapritxo guztiak. Eta horren ordainetan, mespretxatzen nauzu! 170

---

<sup>24</sup> Eufemismo horren bitartez, Fedriak galdetu dio Taisi ea Trasonen neskaitila desloratu duen. Erantzuna ere xehetasun askorik gabekoa izan da, baina aditzera eman du neskaitila oraindik birjina dela (hori garrantzizkoa da komediaren bukaera ona izan dadin).

<sup>25</sup> Etiopia oso herrialde exotikoa zen antzinaroko greziarrentzat. Komedia honetan agertzen diren gainerako esklaboak europarrak (Dabo, Geta) eta asiarrak (Siria) dira.

<sup>26</sup> Gizon irendua. Antzinaroan, goi mailako administrazio-karguak izaten zituzten, edo bestela, emakumeak zaintzeko eta entretenitzeko lana izaten zuten.

<sup>27</sup> Antzinako Greziako txanpona. Hogei mina, zortzi mila erromatar sestertzio dira, alegia, 9 kilo zilar. Fedria esajerazio bat egiten ari da.

TAIS.— A zer burutapenak, Fedria! Nahiz eta neskatila kosta ahala kosta neureganatu nahi dudan, nahiz eta badakidan hau dela hori lortzeko biderik onena, gauza ororen gainetik, ez zaitut etsai izan nahi; hortaz, agintzen didazuna egingo dut.

FEDRIA.— “Ez zaitut etsai izan nahi”... Oxala, hitz horiek bihotzez eta zintzotasunez esango bazenitu! Sinetsi ahalko banu egiatan ari zarela, edozein oinaze pairatuko nuke.

PARMENON.— (*Berekiko*) Esaldi soil batekin eman dik amore! Zeinen azkar!

TAIS.— Bihotz-bihotzetik ari natzaizu, koitadua ni! Inoiz ukatu al dizut bada, 180 txantxetan ere eskatutako ezer? Eta hala ere, nik ezin dizut eskatu bi egunez alde egiteko, pare bat egunez baino ez!

FEDRIA.— Bi egunez balitz... Baina ez daitezela hoge bilakatu!

TAIS.— Benetan, ez dira gehiago izango, soilik bi edo...

FEDRIA.— “Edo”? Ez dut “edo”rik onartuko.

TAIS.— Ez da halakorik izango. Baina bete ezazu nire nahikari hau, mesedez.

FEDRIA.— (*Ironiaz*) Nola ez bada! Zuk nahi duzuna egingo dugu.

TAIS.— Bidezkoa da nik zu maitatzea, oso ondo tratatzen nauzu-eta.

FEDRIA.— Landa-aldera<sup>28</sup> joango naiz datozen egunotan, bertan usteltzera. Erabakia hartuta dago, Taisen nahiak bete behar ditut-eta. Eta hi, Parmenon, arduratu hadi bi horiek ekartzeaz (*Oparituko dizkion bi esklaboez ari da, eunukoaz eta neska etiopiarraz*)

PARMENON.— Ados. (*Etxera sartu*)

FEDRIA.— Agur, Tais, bi egun barru ikusiko dugu elkar. 190

TAIS.— Agur, Fedria maitea. Ezer behar duzu zuk?

---

<sup>28</sup> Antzinako Grezia eta Erroman, goi-mailako familiek bigarren etxea izaten zuten landa-aldean; *villa* zeritzen horrelako etxeei. Nekazaritza-ustiaketarako erabiltzen ziren eta bi atal zituzten: batetik, bizitokia; eta bestetik, produkzio-jardueretarako eremua, zeinean esklaboez lan egiten baitzuten. K.a. II. eta I. mende bitartean, garapen ekonomiko handi bat izan zen eta, horri esker, *villa* haietako bizitokia gero eta teknika arkitektoniko landuagoekin eraikitzen hasi ziren; horren landuak ziren, ezen aberatsentzako landetxe bihurtu baitziren.

FEDRIA.— Zer behar dudan? Militar horrekin zabiltzanean, egon zaitez bertan eta inon ez; maite nazazu, gau eta egun; nire falta sentitu; nirekin egin amets; nire zain egon; beti gogoan izan nazazu; atsegin hartu nirekin; egon zaitez nirekin oso-osoan. Funtsean, izan zaitez zu nire bihotza, eta ni zurea izango naiz.

TAIS.— (*Berekiko*) Zoritxarrekoa ni! Uste dinat ez dela nitaz fidatzen; agian beste emakumeak bezalakoa naizela pentsatzen din. Ala Polux, ondo ezagutzen dinat neure burua, eta zin dagit ez dudala ezer asmatu! Fedria dun bihotz-bihotzez maite dudan bakarra<sup>29</sup>. Eta gertatutakoari dagokionez, neskatilarengatik egin dinat. Izan ere, uste dinat bere neba topatu dudala. Goi-mailako familia bateko kidea dun, eta gaur etxera etorriko zela agindu zidan. Barrura noan eta han itxarongo zionat. (*Etxera sartu*) 200

## II. EKITALDIA

### LEHEN AGERRALDIA

#### *Fedria eta Parmenon*

FEDRIA.— (*Parmenonekin etxetik irteten*) Ekar itzak esklabo horiek, agindu nian moduan.

PARMENON.— Esan eta egin.

FEDRIA.— Baina berehala!

PARMENON.— Esan eta egin.

FEDRIA.— Baina bizkor!

PARMENON.— Esan eta egin.

FEDRIA.— Argi geratu zaik zein den enkargua?

PARMENON.— A zer galdera! Ez da oso zaila, gero! Oxala, Fedria, altxor bat 210

---

<sup>29</sup> Hona hemen goian aipatutako *bona meretrix* 'prostituta zintzoa' arketipoa, Terentzioren obren bereizgarria.

aurkitzea zure opari hau galtzea bezain erraza balitz.

FEDRIA.— Eta hori galtzen baduk, ni neu ere galduta egongo nauk; eta hori bai duk niretzat larria! Ez hadi horrenbeste kezkatu opariarekin.

PARMENON.— Inola ere ez, zure agindua beteko dut-eta. Beste ezer?

FEDRIA.— Apaindu ezak oparia laudoriozko hitzekin ahalik eta txukunen, eta nire etsaia, berriz, urrundu ezak neskarengandik.

PARMENON.— Badakit, ez dago zertan gogorarazi beharrik.

FEDRIA.— Orain landa-aldera noak eta hantxe geratuko nauk.

PARMENON.— (*Ironiaz*) Bai, seguru.

FEDRIA.— Aizak!

PARMENON.— Zer nahi duzu?

FEDRIA.— Uste duk ezingo diodala itzultzeko gogoari eutsi?

PARMENON.— Nork, zuk? Ez dut uste, ala Herkules! Insomnioak bultzatuta bueltatuko zara segituan; eta segituan ez bada, behar baino goizago.

FEDRIA.— Jo eta ke ibiliko nauk lanean, nekatu arte. Horrela nahi eta nahi ez lokartuko nauk. 220

PARMENON.— Orduan ere esna pasako duzu gaua, eta gainera, neka-neka eginda egongo zara.

FEDRIA.— Alde hemendik! Ez hadi lelokeriatan hasi, Parmenon. (*Berekiko*) Aurre egin behar zioat ene izaera makal honi, ala Herkules, azkarregi amore ematen diat-eta. (*Irmoki*) Azken batean, ezin al nauk hiru egunez harengandik aldendu, ala?

PARMENON.— Ene, hiru egun oso! Ondo pentsatu ezer erabaki baino lehen!

FEDRIA.— Hartu diat erabakia. (*Irten*)

PARMENON.— (*Berekiko*) Gure jainko onberak! Zer gaixotasun klase duk hau?

Gizakiek burua galtzen diate maiteminak jota, ez ezagutzeko beste. Lehen, Fedria zuan denetan pertsona arrazoizkoena, serioena eta zentzudunena. (*Gnaton eta Panfila*<sup>30</sup> *hurreratu, esklabo batekin.*) Nor zetorrek, baina? Hara! Gnaton duk-eta, militarren parasittoa. Neskatila zekarrek, Taisi oparitzeko. Ene, a zer aurpegi polita! Seguru-seguru, guztien barregarri izango nauk eunuko zatar hori ikusten dutenean. Neskatila Tais bera baino ederragoa duk-eta!

230

## BIGARREN AGERRALDIA

### *Gnaton eta Parmenon*

GNATON.— (*Berekiko, Parmenon ikusi gabe*) O, jainko hilezkorrak, zergatik gailentzen dituk gizon batzuk besteen artetik? A zer aldea dagoen ergelen eta inteligenteen artean! Hona zergatik bururatu zaidan hori guztia: gaur, hona bidean, nire klase eta maila bereko tipo batekin topo egin diat. Oso gizon agurgarria duk, baina hark ere familiaren ondasun guztiak xahutu ditik, nik bezala. Gaur oso zikin, nazkagarri, gaixo, zimur eta guztiz aguretuta ikusi diat. Galdetu zioat: “Ene, zer zarpail klase duk hori?” (*Solaskidea imitatu*) “Dena galdu nianetik, izaki ziztrin baten moduan bizi nauk. Nire lagun eta ezagun guztiek ezikusiarena egiten zidatek.” Orduan nik, nire egoerarekin konparatu eta segituan lotsarazi diat. Esan zioat: (*Bere burua imitatu*) “Koldar hori! Nola bizi haiz esperantzarik gabe? Ondasunak ez ezik burua ere galdu behar duk, ala? Ni neu ere hire jatorri berekoa nauk, eta begira nola nabilen: a zer kolorea, a zer distira, a zer jantziak eta a zer osasuna! Dena zeukaat, eta aldi berean, ezer ere ez. Eta ezer ez daukadanez gero, ezeren beharrik ere ez.” (*Solaskidea imitatu*) “Baina nik, zoritxarrez, ez zekiat graziosoarena egiten, ezta zigorkadarik jasotzen ere.” (*Bere burua imitatu*) “Zer? Horrela egiten dela uste duk, ala? Bide okerretik habil. Antzina bai, horretatik bizi zuan gure mailako jendea<sup>31</sup>, joan den mendean edo. Baina baduk txoriak harrapatzeko beste metodo eraginkorrago bat, eta nik neuk asmatu nian: pertsona batzuek beti lehenengoak izan nahi ditek kontu guztietan, baina ez ditek inoiz lortzen; haiengana hurbiltzen nauk ni. Hori bai, ez haiek nire kontura barre egiteko, nik haiei barre egiteko baizik. Etengabe esaten zieat zeinen graziosoak diren. Haiek zer esan, nik hura txalotu;

240

250

<sup>30</sup> Taisek bereganatu nahi duen neskatila.

<sup>31</sup> Parasitoez ari da.



eta gero kontrakoa esaten baditek ere, hori ere txalotzen diat. Ezetz esaten dutenean, nik ere ezetz. Baietz denean, nik ere baietz. Laburbilduz, haiekin ados egotea duk neure buruari ezarri diodan araua. Hori duk, gaur egun, bizibidea aurrera ateratzeko modurik onena”.

PARMENON.— (*Berekiko*) Bai tipo azkarra, ala Herkules! Hau gai duk ergelak zoro bihurtzeko.

GNATON.— (*Berekiko*) Eta honetaz ari ginela, merkatura iritsi gintuan. Bertako saltzaileak izugarri pozten zituan ni ikustez: sare-arrantzaleak, harakinak, sukaldariak<sup>32</sup>, hestebete-saltzaileak, kanabera-arrantzaleak<sup>33</sup>... denei lagundu izan zieat noizbait, garai oparo zein urrietan; eta oraindik haien lagun nauk. Azaltzen naizenean, agurtu egiten naitek, bazkaltzera gonbidatzen naitek eta ongietorria ematen zidatek. Eta orduan, gizagaixo gosetu hura, konturatu zenean zelako errespetuz tratatzen ninduten eta zelako erraztasunez lortzen nuen eguneroko mantenua, erregutu zidaan berari ere irakasteko. Niri segitzeko proposatu nioan, sekta filosofikoetan egiten ditzen moduan, zeren horrela, sekta horrek ere bere fundatzailearen izena hartuko likek: gnatoniko<sup>34</sup> deituko zigutek parasito guztioi. 260

PARMENON.— (*Berekiko*) Begira zer lortu daitekeen nagikeriari eta besteren lepotik bizitzeari esker.

GNATON.— Baina berandu nabilek, Taisi neskatilea hau eraman behar zioat eta gero gurekin afaltzera gonbidatu. (*Parmenon ikusi*) Hara! Parmenon duk-eta, gure lehiakidearen esklaboa; eta Taisen ate aurrean zegok. Triste zirudik; ezin hobeto zihoak dena, beraz. Argi zegok, jende horri ez ziotek batere harrera ona egin hemen. Banoak lotsagabe horri burla egitera.

PARMENON.— (*Berekiko*) Horiek uste ditek opari hori aski dela Tais bereganatzeko. 270

GNATON.— Gnatonek zor zaion begirunez agurtzen du berori, Parmenon, ene adiskide mina. Zer moduz?

---

<sup>32</sup> Sukaldariak merkatuetara joan ohi ziren, kontratatuko zituzten langileen bila.

<sup>33</sup> Latinezko *cetarii* (sare-arrantzaleak) eta *piscatores* (kanabera-arrantzaleak) bereizi ditugu.

<sup>34</sup> Filosofo platonikoak bezala.

PARMENON.— Zutik<sup>35</sup>.

GNATON.— Ikusten diat, bai. Zerbait desatsegina ikusi duk, ala?

PARMENON.— Bai, hi.

GNATON.— Sinesten diat. Eta beste ezer?

PARMENON.— Zer dela eta galdera hori?

GNATON.— Triste dirudialako.

PARMENON.— Ez horixe.

GNATON.— Beno, eta zer deritzok neska esklabo honi?

PARMENON.— Ez zegok batere gaizki, ala Herkules.

GNATON.— (*Albo batera alderatuta*) Sututzen ari duk gizona.

PARMENON.— (*Albo batera alderatuta*) Oso oker zebilek!

GNATON.— Uste duk Taisi opari hau gustatuko zaiola?

PARMENON.— Horrekin aditzera eman nahi duk garaile zaretela? Adi, egoera guztiek ditek iraultzeko arriskua.

GNATON.— Sei hilabete baketsu emango dizkiat ordainetan; ez dik batera eta bestera korrika ibili beharrik izango, ezta eguna argitu arte esna egon beharrik ere. Ez haut poztu?

PARMENON.— (*Ironiaz*) Ni? Bai bada!

GNATON.— Horrelakoa izaten nauk lagunekin.

PARMENON.— (*Ironiaz*) Txalotzeko modukoa.

GNATON.— Hi geldiarazten ari nauk. Agian nonbaitera joatekoa hintzen.

280

---

<sup>35</sup> Parmenonek hitzez hitz interpretatu du *Quid agitur?* galdera : «Nola zaude? –Zutik».

PARMENON.— Ez; inora ere ez.

GNATON.— Tira bada, egidak mesedetxo bat: gonbidatu nazak haren etxera (*Taisen etxea seinalatuz*).

PARMENON.— Ea, sar hadi! Gaur zabalik duk atea, neskatila dakark-eta.

GNATON.— (*Ironiaz, barrura sartzean*) Etxeko baten bati irteteko eskatuko zioat?

PARMENON.— (*Albo batera alderatuta*) Ikusiko duk bi egun hauek pasatakoan. Gaur, zorionekoa haiz: nire muturren aurrean zabaldu dezakek atea hatz txikerra bakarrik erabilia, baina lortuko diat hurrengoan ostikoka itzuli behar izatea, eta alferrik izango duk gainera<sup>36</sup>.

GNATON.— (*Taisen etxetik irten*) Oraindik hor, Parmenon? Aizak, zaindari jarri haute hor, militarrek bidalitako bitartekaririk etorri ez dadin?

PARMENON.— Hori bai ateraldia! A zer gustu bikaina dian militarrek! (*Berekiko, 290 Kerea ikusirik*) Hor duk nagusiaren seme gaztea; honantza zetorrek. Zergatik alde egingo zian Pireotik<sup>37</sup>? Han egon beharko likek, zaintza zerbitzu militarrean<sup>38</sup>. Zerbait gertatuko zuan. Korrika zetorrek gainera, eta alde guztietara begira ari duk, auskalo zergatik.

---

<sup>36</sup> Elegietan agertzen den topiko bati egiten dio erreferentzia, *paraklausithyron* deritzon topikoari, alegia. Horrelako obretan, pertsonaietako bat bere maitalearen etxe aurrean egongo da, guztiz atsekabetuta, baina hark ez dio atea irekiko. Ovidiok sarritan erabili izan zuen topiko hura, zeina gerora ere Erdi Aroko trobadoreen poesian agertzen baiten.

<sup>37</sup> Atenasko mendebaldean kokatutako hiria. Bertan itsasoratzen ziren hiriburuko merkantziak.

<sup>38</sup> Kerea efebo bat da eta halako gazteek zaindari lana egiten zuten harresi eta mugetan. Normalean, 18-20 urtekoak izaten ziren, baina Terentziok 16 urtetara jaitsi dio adina, bere pertsonaia eunuko mozarrotu ahal izateko.

## HIRUGARREN AGERRALDIA

### *Kerea eta Parmenon*

KEREA.— (*Berekiko*) Akabatuta nagok! Ez diat neskatila aurkitzen! Galdu egin diat, eta beraz ni ere galduta nagok. Non bilatuko diat orain? Nondik hasi aztarna bila? Nori galdetu? Zer bide hartu? Ez zekiat. Hau duk nire esperantza bakarra: dagoen tokian dagoela, ezingo duk beti ezkutuan gorde. O, zeinen musu ederra dian! Hemendik aurrera, bost axola beste emakume guztiak. Nazkatuta naukatek gorputz arrunt horiek.

PARMENON.— (*Ikusleei*) Hara bestea! Batek zekik zer dioen maitasunaren inguruan. Ene, agure<sup>39</sup> koitadua! Honek ere kontu berarekin hasi behar badik, besteari gertatutakoa denbora pasa eta jolas-hutsa izango duk honen amorruren aldean.

300

KEREA.— (*Parmenon ikusi gabe*) Jainko eta jainkosek madarikatu dezatela geldiarazi nauen agurea, eta baita ni ere, harekin gelditzeagatik eta kasu egiteagatik! Hara, Parmenon. Egun on!

PARMENON.— Zer dela eta zaude hain burumakur? Zer dela eta horren aztoratuta? Nondik zatoz?

KEREA.— Ni? Ala Herkules, ez zekiat nondik natorren; ez zekiat nora noan. Hain nagok nire onetik irtenda!

PARMENON.— Nolatan hori? Jakin badaiteke...

KEREA.— Maiteminduta nagok.

PARMENON.— Zer?

KEREA.— Orain duk hire balioa erakusteko garaia, Parmenon. Gogoratu sarritan hitzematzen hidana: “Kerea, topatu gustuko duzun edozer eta ikusiko duzu zer egiteko gai naizen”. Eta hori esaten hidan nire aitaren despentsa osoa hire gelan<sup>40</sup> metatzen nian artean.

310

PARMENON.— Bai zera, lelo hori!

---

<sup>39</sup> Fedria eta Kerearen aitaz ari da.

<sup>40</sup> Latinez, *cellula*. Badirudi Parmenonek gela txiki bat duela bere jabearen etxean.

KEREA.— Gertatu duk, ala Herkules! Orain, mesedez, bete ezak hire hitza; hire indar guztiak beharko ditiak horretarako. Neskatila hori ez duk hemengoak bezalakoa. Gure herriko neskek sorbalda eroria eta bularralde estua ditek, lirain iruditzeke; izan ere, amak hori egitera behartzen ditik. Apur bat gizena izanez gero, gladiatoretzat hartzen ditek eta janaria murrizten ziotek. Era horretan, gorpuzkera polita zeukana zotz bihurtzen ditek. Horrela topatzen zizkietek maitaleak<sup>41</sup>.

PARMENON.— Eta nolakoa da zure neskatila, bada?

KEREA.— Haren edertasuna ezohikoa duk.

PARMENON.— Hara, hara!

KEREA.— Kolore osasuntsua, gorputz bete-betea eta mamitsua.

PARMENON.— Adina?

KEREA.— Adina? Hamasei urtekoa.

PARMENON.— Gaztaroaren onenean dago.

KEREA.— Ekarridak oraintxe bertan. Indarrez, engainuz edo erreguz... berdin duk. 320  
Ekartzea besterik ez diat nahi.

PARMENON.— Baina, norena da neska hori?

KEREA.— Ez zekiat, ala Herkules.

PARMENON.— Nongoa da?

KEREA.— Hori ere ez zekiat.

PARMENON.— Non bizi da?

KEREA.— Ez diat horren berri.

PARMENON.— Non ikusi duzu?

---

<sup>41</sup> Bi eratara uler daiteke esaldia: batetik, 'Horrela ez dute amoranterik topatuko'; eta bestetik, 'Horrela, itsusiak diren arren, amorangeak topatzen dituzte'.

KEREA.— Klean.

PARMENON.— Eta nola galdu duzu begien bistatik?

KEREA.— Horregatik nengoan amorratuta hona iritsi baino lehen. Inor ez zegok munduan halako zoriona hain zoritxar gaiztoa bihurtu zaionik. A zer zorte txarra! Nireak egin dik.

PARMENON.— Zer gertatu da, bada?

KEREA.— Galdera bat duk hori? Ezagutzen al duk Arkimedes, gure aitaren senide eta laguna<sup>42</sup>?

PARMENON.— Nola ez bada!

KEREA.— Neskaren atzetik nenbilela, harekin topo egin diat.

PARMENON.— A zer ezbeharra, ala Herkules!

KEREA.— Sekulako zoritxarra, hobeto esanda; ezbeharrak bestelakoak dituk, 330  
Parmenon. Benetan, ziur nauk gizon hori ez dudala azken sei edo zazpi hilabeteotan ikusi, eta noiz-eta gaur agertu behar zitzaidaan, gutxien nahi eta behar nuenean! (*Haserre*) Aztikeria usaina hartzen zioat honi! Zer uste duk?

PARMENON.— Bai horixe.

KEREA.— Ni ikusi orduko, niregana etorri duk korrika, konkortuta, dardarka, ezpain-oker eta aiurika: “Aizak! Aizak! Zurekin ari nauk, Kerea”, esan zidak. Gelditu egin nauk. “Badakik zergatik ari nintzen hire bila?” “Zergatik?” “Bihar epaiketa bat diat.” “Bai, eta?” “Gogoraiok hire aitari bihar niri laguntzera etorri behar duela.” Ordubete 340  
behar izan dik hori guztia kontatzeko. Beste ezer behar zuen galdetu zioat, eta hark “hori besterik ez”. Eta alde egin diat. Berriri hemendik begira hasi naizenean, neska bide horretan biratzen ikusi diat, gu gauden kalerantz, hain zuzen.

PARMENON.— (*Berekiko*) Taisi oparitu berri dioten neskatilaz ari duk, seguru.

---

<sup>42</sup> *Aequaelem* terminoarekin, Atenasko *hetairia* bati egin nahi dio erreferentzia Terentziok. *Hetairiak* elkarte modukoak ziren, zeinak adin, baldintza edo ideologia politiko bereko pertsonak osatzen baitzituzten. Adibidez, *hetairia* berekoak ziren Sokratesen dizipuluak: sokratikoak.

KEREA.— Eta hona iritsi naizenerako, desagertu egin duk.

PARMENON.— Zaintzailereren bat izango zuen, ezta?

KEREA.— Bai: parasito bat eta neskame bat.

PARMENON.— (*Berekiko*) Bera duk. Bukatu duk<sup>43</sup>. (*Kereari*) Utz ezazu bakean; kitto!

KEREA.— Ez gaituk kontu beraz ari.

PARMENON.— Bai horixe, horretaz ari naiz.

KEREA.— Ezagutzen duk? Esaidak. Edo ikusi duk?

PARMENON.— Ikusi dut, ezagutzen dut eta badakit nora eraman duten.

350

KEREA.— Ai! Ene Parmenon, ezagutzen duk? Eta badakik non dagoen?

PARMENON.— Hona ekarri dute, Tais prostitutaren etxera. Hari eman diote opari gisa.

KEREA.— Eta zer pertsona boteretsuk egin ziozk horren opari baliotsua?

PARMENON.— Trason militarrek, Fedriaren lehiakideak.

KEREA.— Lan zaila izango dik nire anaiak, orduan.

PARMENON.— Eta are zailagoa duela esango zenuke, hark eskainitako oparia ikusiko bazenu.

KEREA.— Zer duk? Kontaidak, ala Herkules.

PARMENON.— Eunuko bat.

KEREA.— Atzo erosi zuen izaki higuigarri horretaz ari haiz? Ez emakume ez gizon ez den agureaz?

PARMENON.— Horixe bera.

KEREA.— Gizagaixoa, atea muturren aurrean itxiko zietek bie: hari eta bere opariari.

---

<sup>43</sup> Donatoren arabera, *conclamatum est* esapideak hileta-erritu erromatar bati egiten dio erreferentzia, zeinean hildakoari hainbat alditan dei egiten baitzioten, benetan hilda zegoela ziurtatzeko asmoz.

Ez nekian Tais gure auzoan bizi zenik.

PARMENON.— Duela gutxi etorri zen.

KEREA.— Koitadua ni! Ez diat inoiz ikusi-eta! Aizu, esaidak: horren ederra al duk? 360

PARMENON.— Bai horixe.

KEREA.— Baina hutsaren hurrena, nirearen aldean, ezta?

PARMENON.— Desberdinak dira.

KEREA.— Ala Herkules! Arren eskatzen diat, Parmenon: molda hadi nik neskatila eskuratu ahal izateko, faborez.

PARMENON.— Saiatuko naiz, nire esku dagoen guztia egingo dut eta lagunduko dizut. (*Alde egiteko keinua egin*) Zer gehiago behar duzu?

KEREA.— Nora hoa?

PARMENON.— Etxera. Zure anaiaren aginduz, Taisi esklabo hauek eramán behar dizkiot.

KEREA.— A zer zortea dian eunuko horrek: etxe horretan sartuko ditek!

PARMENON.— Zergatik bada?

KEREA.— Zergatik? Etxean bertan izango dik egunero esklabo-kiderik ederretan ederrena; harekin hitz egingo dik, toki berean biziko dituk; harekin bazkalduko dik, batzuetan; eta noiz edo behin haren ondoan egingo dik lo.

PARMENON.— Eta zu bazina zorioneko gizabanako hura?

KEREA.— Nola, Parmenon? Esaidak

PARMENON.— (*Eunukoa seinalatuz*) Horren arropa jantzi zenezake.

KEREA.— Horren arropa? Eta gero, zer? 370

PARMENON.— Zu eramango zaitut, haren orde.



KEREA.— Aditzen diat.

PARMENON.— Bestea zarela esango dut.

KEREA.— Orain ulertzen diat.

PARMENON.— Eta zu izango zinateke lehen aipatu dituzun abantaila guztiak izango dituen: harekin bazkalduko duzu; haren ondoan egongo zara; ukitu ahalko duzu; harekin jolastuko zara; eta harengandik hurbil egingo duzu lo; zeren, hango ezein emakumek ez zaitu ezagutzen, ezta nor zaren jakin ere. Gainera, itxura eta adin horrekin erraz hartuko zaituzte eunukotzat.

KEREA.— A zer ideia bikaina, ez zegok hori baino aholku hoberik! Tira, sar gaitezen barrura oraintxe bertan! Lagundu janzten, goazen hemendik eta eraman nazak hara segituan. (*Parmenon bultzatuz*)

PARMENON.— Zertan ari zara? Txantxetan ari nintzen-eta!

KEREA.— Txorakeriarik ez. (*Parmenon gogor bultzatzen jarraitu*)

PARMENON.— Nireak egin dik! Egundokoa antolatu diat! Gaixoa ni! Nora naramazu? Kontuz, edo botako nauzu! Benetan ari naiz, utzi bakean!

KEREA.— Aurrera!

PARMENON.— Ziur zaude?

KEREA.— Erabakia hartuta zegok.

PARMENON.— Kontuz! Ez da komeni erabakiak bero-beroan hartzea.

380

KEREA.— Ezetz bada; utzidak egiten.

PARMENON.— Baina nire saihetsen gainean ehoko dituzte baba horiek<sup>44</sup>.

KEREA.— Bo, bo!

PARMENON.— Baina hau lotsagarrikeria hutsa da.

---

<sup>44</sup> Esaeraren esanahia da larrutik ordainduko dituela besteen hutsak.

KEREA.— Lotsagarrikeria? Lotsagarrikeria al duk prostituta baten etxera sartzea eta merezi duena ematea? Etengabe iseka egin eta torturatzen gaituzten emakume horietaz ari haiz? Lotsagarrikeria al duk haiek engainatzen gaituzten bezala, ordainetan guk ere haiek engainatzea? Zilegiago duk gure aita engainatzea horrela, ala? Hau aitarekin egiten badut, enteratzen diren guztiek kondenatuko naitek; baina beste hura eginez gero, denek esango ditek emakumeek haien ordaina jaso dutela.

PARMENON.— Zer esatea nahi duzu? Egin behar baduzu, egizu; baina ez iezadazu errua leporatu, gero!

KEREA.— Ez horixe.

PARMENON.— Agindua da?

KEREA.— Ea agindua den? Agindua eta ezinbestean egin beharrekoa; eta inoiz ez zioat 390 nire erantzukizunari uko egingo. Etorri!

PARMENON.— Jainkoek lagundu gaitzatela! (*Biak etxe barrura sartu*)

### III. EKITALDIA

#### LEHEN AGERRALDIA

##### *Trason, Gnaton eta Parmenon*

TRASON.— Orduan, Taisek eskerrak eman zizkidak?

GNATON.— Izugarri eskertzen dizu.

TRASON.— Esan: pozik zegok?

GNATON.— Pozik, baina ez opariagatik; zuk eman diozulako baizik. Hori bai garaipena.

PARMENON.— (*Berekiko*). Bazterrak miatzera etorri nauk, behar denerako. Hara! Hona hemen militarra.

TRASON.— Dudarik gabe, dohain berezia zeukaat edozerren truke besteen esker ona

jasotzeko.

GNATON.— Konturatu naiz, ala Herkules!

TRASON.— Erregeak<sup>45</sup> berak ere bere esker ona erakusten zidaan, mesede txikienagatik ere; gainerako guztiei ez, baina.

GNATON.— Eskuarki, loria lan mardularen bitartez baino ez da lortzen. Zure grazia eta 400 gatza duzuenok, ordea, hitz bakar bat aski duzue horixe bera eskuratzeko.

TRASON.— Hala duk.

GNATON.— Beraz, erregeak zu oso begiko...

TRASON.— Jakina!

GNATON.— ... zintuen.

TRASON.— Bai, nire esku uzten zitian haren armada osoa eta hartu beharreko erabakiak.

GNATON.— Miresgarria.

TRASON.— Gainera, jendeaz eta lanaz aspertuta zegoenean, atsedean hartzeko... zerak dioen bezala... badakik... bere...

GNATON.— Bai: “bere arazoak arimatik kanporatzeko<sup>46</sup>”

TRASON.— Hori duk. Orduan ni bakarrik nahi nindian haren ondoan.

GNATON.— Hara! Gustu fina zuen erregeak, gero.

TRASON.— Bai, hala duk. Lagun gutxi zitian.

---

<sup>45</sup> Komeditan agertzen diren militarrek Alexandro Handia hil ondoko (K.a. 323) erregeen mertzenarioak izan ohi dira.

<sup>46</sup> Badirudi Trasonen erreferentzia poetiko bat gogora ekarri nahi zuela, baina Gnatonek lagundu behar izan dio.

GNATON.— (*Berekiko*) Edo hobeto esanda, bat ere ez, hi baldin bahintzen haren lagun bakarra.

TRASON.— Denek zidatean inbidia eta isilpean maiseatzen ninditean; baina ez nieran kasu izpirik ere egiten. Izugarri bekaiztiak zituan, haietako bat batez ere, Indiako elefanteak<sup>47</sup> zaintzen zitiana. Behin, lotsagabekeria asko esan zizkidaan, eta honela erantzun nioan: “Aizak, Estraton, basapiztien artean ibiltzeak basati bihurtu hau, ala?”

GNATON.— Ala Herkules, a zer erantzun fin eta zuhurra! Makilakada ederra! Eta? Zer egin zuen besteak?

TRASON.— Mutu geratu zuan.

GNATON.— Arrazoiz, gainera.

PARMENON.— (*Ikusleei begira*) Jainkoen izenean! Bai tipo kirten eta nazkagarria! Eta bestea berriz, gezurti galanta!

TRASON.— Gnaton, eta kontatu diat inoiz nola eman nion egurra Rodaseko gazte bati, afari batean?

GNATON.— Ez horixe, kontaidazu mesedez! (*Ikusleei begira*) Hamaika aldiz entzun zioat.

TRASON.— Rodastarra eta biok mahai berean geundean eserita. Kasualitatez, puta bat ekarri nian nirekin, eta mutila txantxetan ibili zitzaioan, eta niri adarra jotzen ere bai. Orduan, erantzun nioan “Zertan ari haiz, lotsagabe hori? Erbi ziztrin bat izanik, untxi bila habil<sup>48</sup>?”

GNATON.— Kar, kar, kar!

TRASON.— Zer?

---

<sup>47</sup>Antzinaroan, Indo Haraneko kulturari, oso ohikoa zen elefanteak gerrarako hezteak. Tradizio hori persiar-inferiora zabaldu zen, eta haiengandik greziarregana iritsi. Alexandro Handiaren tropek K.a. 331. urtean ikusi zituzten lehen aldiz elefanteak, Gaugamelako batailan, Persiako errege Dario III.aren armadaren kontra borrokatzen ari zirela. Enperadore mazedoniarrari hain boteretsuak iruditu zitzaizkion elefante haiek, ezen hark ere bere armadan sartzea erabaki baitzuen. Horrela, inguruko erreinuetara zabaldu zen elefanteak hezteko ohitura hura, batik bat Egiptora, Kartagora eta Numidiara.

<sup>48</sup> Homosexualitateari egiten dio erreferentzia. Trasonen ustez, Fedria umeegia (erbia) da oraindik emakumeen atzetik ibiltzeko.

GNATON.— Barregarria, fina eta zorrotza; ezin hobea! Zurea al zen esakunea? Aspaldikoa zela uste nuen.

TRASON.— Zer ba? Gehiagotan entzun duk ala?

GNATON.— Askotan, eta esakune onenen artean dagoela diote.

TRASON.— Ba, nirea duk.

GNATON.— Pena familia oneko mutil zintzo bati esan izana.

430

PARMENON.— (*Ikusleei begira*) Jainkoek madarikatuko al haute!

GNATON.— Eta besteak... zer erantzun zizun? Kontaidazu.

TRASON.— Harri eta zur geratu zuan. Han zeuden guztiak, berriz, barrez lehertu zituan. Azkenean, denak beldurtu nitian.

GNATON.— Arrazoiz.

TRASON.— Baina, aizak, azalpenak eman behar zizkioat Taisi, susmatzen duelako neskatilaren maitalea naizela?

GNATON.— Ezta pentsatu ere. Aitzitik, haren susmoa areagotu behar duzu.

TRASON.— Zertarako?

GNATON.— Zertarako? Gogoratu nola asaldatzen zaren Fedria aipatu eta gorai patzen duenean

TRASON.— Egia duk.

GNATON.— Hori saihesteko, hau da konponbide bakarra: hark Fedria aipatzen duen guztietan, zuk Panfila aipatuko duzu. Hark: “Esan diezaiogun Fedriari gurekin afaltzeko”. Zuk: “Esan diezaiogun Panfilari kantatzeko”; haren gorpuzkera laudatzen badu, zuk Panfilarena. Kolpe bakoitzari beste kolpe batekin erantzungo diozu, eta ederto ozpinduko da.

TRASON.— Horrek lagunduko lidakek neskak maiteko banindu, Gnaton.

GNATON.— Zure opariak irrikatu eta onartzen baditu, duela askotik maite zaitu, eta beraz, erraz sufriarazi ahalko diozu. Hona neskaren etengabeko beldurra: inoiz harekin haserretzen bazara, akabo harentzat zu eta orain jasotzen dituen gutizia guztiak.

TRASON.— Zuzen habil! Ez zaidak inoiz horrelakorik bururatu.

GNATON.— A zer txorakeria! Ez duzulako ondo pentsatu; bestela, berehala 450 konturatuko zinen, eta ni baino hobeto, gainera, ene Trason!

## BIGARREN AGERRALDIA

*Tais, Trason, Gnaton, Parmenon eta Pitias*

TAIS.— Hara! Militarraren ahotsa entzun dudala uste dinat. Eta horra hor! Egun on, ene Trason maitea!

TRASON.— Kaixo Tais, ene laztana! Zer moduz? Apurtxo bat gehiago maite nauzu lira-joleari esker?

PARMENON.— (*Ikusleei begira*) Bai xarmagarria! Harrera polita egin zio, heldu eta berehala.

TAIS.— (*Trasoni*) Izugarri, merezi duzun beste.

GNATON.— Tira bada, goazen afaltzera. (*Taisi*) Zeren zain zaude?

PARMENON.— (*Ikusleei begira*) Eta horra hor bestea! Benetan al duk gizakia? 460

TAIS.— Nahi duzunean. Prest nago.

PARMENON.— (*Ikusleei begira*) Hurbildu egingo natzaiok eta irteten ari naizen plantak egingo ditiat. (*Taisi*) Nora zoaz, Tais?

TAIS.— (*Berekiko*) Hara, Parmenon dun! (*Parmenoni, xuxurlatuz*) Oso ideia ona izan duzu. (*Ozenki*) Ni... zerera nindoan...

PARMENON.— Nora?

TAIS.— Ez duzu ikusten, ala? (*Trason seinalatuz*)

PARMENON.— (*Taisi, xuxurlatuz*) Hura ikusi eta amorratu egiten naiz. (*Ozenki*) Nahi duzunean, Fedriaren opariak emango dizkizut.

TRASON.— Zergatik gelditu gara? Goazen hemendik.

PARMENON.— (*Trasoni*) Ala Herkules, emaiguzu arren baimena entregatu nahi diogun gauza bat entregatzeko eta harekin mintzatzeko, unetxo batez.

TRASON.— (*Ironikoki*) Sekulako opariak izango dituk, ezta? Nireen parekoak.

PARMENON.— Ikusiko duzue. (*Etxe barrurantz oihu eginez*) Irten daitezela kanpora 470 agindutako bi horiek! (*Neskame etiopiarra irten*) Aurrera, zatoz hona! Neska hau Etiopia sakonetik dator.

TRASON.— (*Ironikoki*) Honek hiru mina<sup>49</sup> inguru balio dik.

GNATON.— Ozta-ozta.

PARMENON.— (*Kereari*) Eta hi non hago, Doro? Hator hona. (*Taisi*) Hemen duzu zure eunukoa. Begira zeinen itxura jatorra eta zein gaztea!

TAIS.— Ala jainko gorenak! Ederra da, gero<sup>50</sup>.

PARMENON.— Zer deritzok, Gnaton? Badauka akatsik? Eta zuk, Trason, zer uste duzu? (*Isilunea*) Hitzik ez, hori da laudoriorik onena. (*Taisi, ozenki*) Egizu aproba, denetik daki: literatura, gimnastika<sup>51</sup>, musika... gazte askeen gaitasun guztiak ditu.

TRASON.— (*Gnatoni, besteek ez entzuteko*) Beharrezkoa balitz, hara zer egingo niokean nik eunuko horri... eta mozkortu beharrik gabe gainera<sup>52</sup>.

---

<sup>49</sup> Oso prezio txikia; esklabo batek hogeit hamar mina inguru balio zezakeen.

<sup>50</sup> Mozorrotuta dagoen arren, Kereak ezin du gizon askearen itxura ezkutatu. Horregatik harritu da horrenbeste Tais, esklabo bat espero baitzuen; hau da, greziar kulturaren arabera, pertsona mesfidati eta zitala.

<sup>51</sup> Solonen garaian, esklaboek debekatuta zeukaten gimnasioetara joatea. Horregatik da hain berezia eunuko hori.

<sup>52</sup> Terentziok barregarri utzi nahi du Trason komentario horren bitartez. Izan ere, Fedriari maritxu deitu ondoren (426. bertso-lerroa) hura da benetan gizonak gustuko dituen.

PARMENON.— (*Taisi*) Eta opari hau egin dizunak ez du zure bizitzaren jabe izan nahi, 480  
eta ez dizu exijituko beste inor baztertzeko. Ez zaitu bere gudu kontuekin aspertzen, ez  
dizkizu bere gerra-orbainak erakusten, ezta oztoporik jartzen ere, beste batzuen moduan.  
Aitzitik, ematen diozunarekin konformatzen da, enbarazorik egiten ez dizunean, gogoan  
edo astia duzunean soilik.

TRASON.— (*Gnaton*) Nabari duk nagusi txiro eta zoritxarreko baten esklaboa dela.

GNATON.— Zuzen zabilta, ala Herkules. Beste bat erosteko adina diru baleuka, ez  
luke morroi hau jasango, ziur nago.

PARMENON.— (*Gnaton*) Isil hadi, doilorretan doilorrena haiz-eta. Tipa hau (*Trason* 490  
*seinalatuz*) lausengatzeko gai izan bahaiz, kapaz haiz hildakoen errautsetatik ere janaria  
lapurtzeko<sup>53</sup>.

TRASON.— (*Taisi*) Bagoaz?

TAIS.— Lehenengoz, esklabo horiek etxean sarraraziko ditut eta agindu batzuk emango  
dizkiet; berehala etorriko naiz. (*Etxera sartu, Kerearekin eta neskame etiopiarrarekin*)

TRASON.— (*Gnaton*) Ni banoak hemendik; hi gera hadi hemen, Taisen zain.

PARMENON.— (*Ironikoki*) Noski, jeneral nagusiei ez zaie komeni neska-lagunarekin  
kaletik ibiltzea.

TRASON.— Zertarako erantzungo diat? Hire nagusiaren berdina haiz-eta. (*Parmenon*  
*irten*)

GNATON.— Kar, kar, kar!

TRASON.— Zerk barre eragiten dik?

GNATON.— Esan duzun horrek, eta baita rodastar horren pasadizoak ere, berriz gogora  
etorri zaidalako. (*Tais berriro irten, bere neskame Pitiasekin eta Panfilaren neskame*  
*Doriasekin*) Hemen dator Tais.

---

<sup>53</sup> Erromatar tradizioan, hildakoak errausten zituzten eta oso ohikoa zen haiekin batera janaria ere sutara  
botatzea. Haien zatiak krimen ikaragarria zen jaki haiek lapurtzea; horregatik, esapide hori (*e flamma petere*  
*cibum*) pertsona zitaleri esaten zitzaizkien.



TRASON.— Aurrea hartu eta ziurtatu dena prest dagoela etxean.

GNATON.— Ados. (*Irten*)

500

TAIS.— (*Pitiasi, ahapeka*) Gogora ezan, Pitias: Kremes hemen azaltzen bada, eskaion arren hemen itxaroteko. Ezin badu, esan beste momentu batean etortzeko; eta hori ere nahi ez badu, ekarri nigana segituan.

PITIAS.— Ondo da.

TAIS.— Eta... zer gehiago esan behar ninan? A, bai! Ondo zaindu neskatila eta ez zaitetzte etxetik irten. (*Pitias etxean sartu*)

TRASON.— (*Taisi*) Goazen.

TAIS.— (*Neskameei*) Zuek, zatozte nirekin. (*Trason, Tais eta esklaboak irten*)

## HIRUGARREN AGERRALDIA

### *Kremes, Pitias eta Dorias*

KREMES.— (*Berekiko*) Egia esan, zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta argiago diat Taisek atsekaberen bat emango didala. Neska maltzur horrek hasieratik zeukaan dena 510 prestatuta, deitu zidanetik! Askok galdetuko zidatek: “zer darabilzu neska horrekin?”. Ez nian ezagutzen-eta! Iritsi nintzenean, aitzakia bila ibili zitzaidaan han geratu nendin. Sakrifizio bat egin berri zuela zioan, eta kontu garrantzitsu batez hitz egin behar genuela. Orduan ere susmatu behar nian asmo txarrez ari zela. Nire ondoan etzan zuan, ni limurtu nahian ibili zitzaidaan eta nirekin hitz egiten saiatu zuan. Hori bukatutakoan, 520 aita eta ama noiz hil zitzaizkidan galdezka hasi zuan. Duela asko, esan nioan. Eta galdezka jarraitu zian, ea baserririk nian Sunion inguruan, eta itsasotik zenbatera. Uste diat gustatzen zaiola eta kendu nahi didala. Azkenean, galdetu zidaan ea arreba txikia desagertu zitzaigun, umetan; ea inor zegoen harekin; ea zer zeukan aldean bahitu zuten egunean; eta ea inork ezagutuko lukeen orain. Zergatik galdetuko zidaan hori guztia? Ez 530 dik ba esango, ausart horrek, bera dela nire arreba desagertua? Bizi bada, ez ditik hamasei urte baino gehiago izango, eta Tais ni baino zaharxeagoa duk. Gaur berriz

erregutu zidak harengana joateko. Esan diezadala behingoz zer nahi duen eta utz nazala bakean! Ez nauk hirugarren aldiz itzuliko, ala Herkules! (*Taisen etxera deitu*) Kaixo, kaixo! Badago inor? Kremes naiz.

PITIAS.— (*Etxetik irten*) A zer gizontxo maitagarria!

KREMES.— (*Berekiko*) Ez diat bada esan tranpa bat dela?

PITIAS.— Taisek arren eskatzen dizu bihar joateko.

KREMES.— Landa-aldera noan.

PITIAS.— Baina itzul zaitez, mesedez.

KREMES.— Esan dinat jada, ezin dinat.

PITIAS.— Bada orduan gera zaitez hemen gurekin, Tais itzuli arte.

KREMES.— Ezta pentsatu ere.

PITIAS.— Zergatik ez, ene Kremes?

KREMES.— Joan hadi infernura.

PITIAS.— Bestela, hain ziur baldin bazaude, joan zaitez harengana, bihotza.

KREMES.— Banoan.

PITIAS.— (*Etxe barrura*) Tira, Dorias, lagun iezaion berehala militarren etxera.  
(*Denak irten*)

## LAUGARREN AGERRALDIA

### *Antifon*

ANTIFON.— (*Sartu. Berekiko.*) Atzo gazte batzuk elkartu gintuan Pireoan, denon 540 artean afari bat antolatzeke. Kerea hautatu genian antolatzaile eta, hortaz, gure eraztunak eman genizkioan<sup>54</sup>; gero, tokia eta ordua zehaztu genituan. Ordua pasa duk eta, geratutako tokian, ez zegok ezer prest; antolatzailea bera ere ez duk azaldu. Ez zekiat zer esan; ez zekiat zer pentsatu. Haren bila joateko agindu zidatek besteek, eta horregatik noak haren etxera orain. (*Kerea ikusi, eunuko jantzita Taisen etxetik irteten.*) Nor duk Taisen etxetik irteten ari den hori? Hura duk, edo ez? Bai, baduk. Baina, zer gizon klase duk hori? Eta jantzi horiek? Zer demontre gertatu zaiok? Harri eta zur utzi naik; auskalo zergatik dagoen horrela. Kontuak kontu, urrundu egingo nauk pixka bat, ea horrela guztiaz jabetzen naizen. (*Agertokitik alboratu.*)

---

<sup>54</sup> Atenasen ohitura zen afariaren antolatzaileari nor bere eraztuna ematea, bahi gisa; gero, otordua ordaindu bezain pronto itzultzen zitzaion bakoitzari berea.

## 5. Bibliografia

### 5.1. Terentzioren *Eunukoaren* edizioak eta itzulpenak

Barsby, J. (itz. ed.), 2001, *Terence. The woman of Andros. The self-tormentor. The eunuch*, Cambridge (Massachusetts): Harvard University Press.

Del Col, J.J. (itz.), 2008, *Terencio. El eunuco*, Bahía Blanca: Instituto Superior Juan XXIII.

Fontana Elboj, G. (itz.), 2008, *Terencio. Obras: La adriana. El atormentado. El eunuco. Formión. La suegra. Los hermanos*, Bartzelona: Gredos.

Marouzeau, J. (itz. ed.), 1979, *Terence, tome I. Andrienne. Eunuque*, Paris: Les Belles Lettres (5.edizioa).

Pociña, A. & A. López (itz. ed.), 1977, *Eunuchus/El Eunuco*, Bartzelona: Bosch.

Rubio Fernández, L. (itz. ed.), 1991, *Terencio. Comedias: La Adriana. El Eunuco*, Madril: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

### 5.2. Bibliografia osagarria

Alberdi Larizgoitia, X., 1993, “Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak”. *Fontes Linguae Vasconum*, 64, 434-440.

Alberdi Larizgoitia, X., 1996, “Euskararen tratamenduak: erabilera”, *Iker*, 9, 212, Bilbo: Euskaltzaindia.

Bilbao Telletxea, G., 1996, “Jean Mekol Garindañekoaren *Edipa* pastorala (1793)”, *ASJU* 30, 1, 239-332.

Bilbao Telletxea, G., P. Garcia Iraeta, M. Utrilla Arana (itz.), 2018, *Plauto. Militar harroputza*, Bilbo: UEU.

Brown, P., 2013, “Terence and Greek New Comedy”, in A. Augoustakis & A. Traill (edd.), *A Companion to Terence*, 17-32, Oxford: Blackwell Publishing Ltd.

Christenson, D., 2013, “Eunuchus”, in A. Augoustakis & A. Traill (edd.), *A Companion to Terence*, 262-280, Oxford: Blackwell Publishing Ltd.

- Euskaltzaindia, 1997, 76. araua. *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*.  
<[http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0076.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0076.pdf)>
- Euskaltzaindia, 2002, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gilula, D., 1980, "The Concept of the "bona meretrix". A Study of Terence's Courtesans", *Rivista di Filologia e di Istruzione Classica*, 108, 142-165.
- Henry, G. K. G., 1915, "The characters of Terence", *Studies in philology* 12, 2, 57-98.
- Karakasis, E., 2013, "Masters and Slaves", in A. Augoustakis & A. Traill (edd.), *A Companion to Terence*, 211-222, Oxford: Blackwell Publishing Ltd.
- Loidi Garitano, A., 2003-2004, "Antiokiako San Julianen Pastoral (1770)", *ASJU* 38, 1, 1-133.
- Rey Escalera, F., 2013, "Emakumeak bere buruari nola?", *31 eskutik bloga*, EIZIE.  
<<http://31eskutik.eizie.eus/2013/12/16/emakumeak-bere-buruari-nola/>>
- Urkizu Sarasua, P., 1988, *Zuberoako irri teatroa: Astolasterrak*, Donostia: Gipuzkoako Kutxa.
- Wolf, V., 2013 [<sup>1</sup>1929], *Gela bat norberarena*, Bilbo: Consonni.